



Milagros Rubio

1979tik zinegotzi Tuteran

«Makina instituzionalak
zu irenstea nahi ez
baduzu, gizarte
mugimenduetako
parte izan
behar duzu»



- **Kontsumo ohiturak** Marketin emozionalak borroka irabazi dio arrazoiari
- **Irati Sienna**, Ernai «Orain emakumeok ikusgarriago gara ezker abertzalean, baina barnera begira lan handia dugu egiteko»
- **Blogetan!** Euskal blog onenak saritzeko lehiaketa abiatu dute Azkue Fundazioak eta ARGIAk
- **Larrun** Dolores Juliano antropologo feministari elkarritzeta

berria

berria



Euskara errazean bilduma:

Piztiak eta piztitzarrak · Saki
Beheko maila (A2) ★★★★★

Kresala · Txomin Agirre
Gorengo maila (C1) ★★★★★

Liburuak

Erroa
argitaletxea



www.erroa.net

GABRIELEN LEKUA



GABRIEL ARESTI
KULTURA ELKARTEA



www.gabrielaresti.eu



EUSKARA JENDEA

GURE HIZKUNTZAREN HISTORIA
GURE HISTORIAREN HIZKUNTZA

Dvd sorta



www.euskarajendea.com



*Hamaiika bide
hamaiika aukera*



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egilek aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Irizkiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko abenduaren 29a, 2.397. zenbakia

ASTEKO GAIA

KONTSUMO OHITURAK Emozioek saldua.
NAGORE IRAZUSTABARRENA / 4

PERTSONAIA

MILAGROS RUBIO: «Euskalduna ez banintz, boto gehiago izango nituzkeela esaten zidaten Tuteran». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

BLOGETAN! LEHIAKETA Euskal blogari onenen bila. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 15

NU DEM EGUNKARI KURDUA Garai gorrietan *Garai Berria*.
KARLOS ZURUTUZA / 16

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Taldean egindako liburua.
MARTIN VICIOSO / 18

IRITZIAREN LEIHOA

BIKTIMAK JUNE FERNANDEZ / 20

FAGOR: AUTO ERAKETAREN HIGADURA AINHOA LARRAÑAGA / 21
GALDERARIK? ROSA MARIA MARTIN SABARIS / 22

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 19

TXANDAN Euskal Erdia. EDU ZELAIETA / 22

BERTSO BERRIAK Erreferendumei jarriak. B. GAZTELUMENDI / 21
ZIRTA Gure iraganeko gu. ANGEL ERRO / 23

ERDIKO KAIERA

ENRIQUE VILLARREAL EL DROGAS: «Nire disko pirata saltzen ikusten dudanean, 'ongi goaz, top mantan gaude' esaten diot neure buruari». KOLDO AZKUNE ETXABARRI / 24

RAMON LABAIEN Nazioaren zentzua. ELIXABETE GARMENDIA / 28
LITERATURA AMAIA ALVAREZ URIA / 30

MUSIKA JOXI UBEDA / 31

IHESI HUAYNA POTOSI (BOLIVIA) «Muino gaztea», 6.000 metrotik gorako gailurra. EGOITZ ARRUTI URIA / 32

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36

ALEA Airean kulunkatzeko gomita. MIKEL ASURMENDI / 37

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 38

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 39

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

TERMOMETROA

IRATI SIENRA: «Beste eredu bat nahi dut, ez soilik Euskal Herrirako, baita nire auzorako ere». URKO APAOLAZA AVILA / 41

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 45

GALIZIERA Portugesa bada, portugesez idatzi. UNAI BREA / 46

NET HURBIL New Yorken oro da *fast* eta *low cost*, langileak barne.
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

OHARRA

Datorren astean ez da ARGIA kaleratuko. Urtarrilaren 12an itzuliko gara.

Emozioek salduta

Kontsumo arrazionalaren osagai nagusiak beharra, kalitatea eta prezioa dira. Baina marketin eta publizitate estrategiek zentzugabe kontsumitzera bultzatzen gaituzte, arrazoia alde batera utzi eta emozioetara lerratzen. Eraitza: kontsumitzaile guztiok (edo ia), neurri handiagoan edo txikiagoan, emozionalki erosten dugu.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |

“EROSTEKO erabakiaren %85 subkontzientea da”, Mindcode Internationaleko aholkulari nagusi Jurgen Klaric-en hitzetan. Harvardeko irakasle Gerald Zaltmanek, aldiz, portzenta-jea %95eraino eraman du. Munduko neuro-marketin aditu nagusienetakoek esandakoa aintzat hartuz gero, ondorioa garbia da: erosterakoan erabat salduta gaude. Baina datu zehatzagoak aztertuz gero, kontsumitzaile batetik bestera alde nabarmena dagoela ondorioztatu daiteke.

EHUko Kontsumoaren Psikosoziologiako irakasle Irene Garcia eta Elena Olabarriak euskaldunon kontsumo ohitura adiktiboek buruzko ikerlana argitaratu zuten 2001ean, Bizkaian egindako inkesta batean oinarrituta. Kontsumitzaileak lau taldetan banatu zituzten: %11 kontsumitzaile neurrigabeak zirela, mendetasuna zutela, ondorioztatu zuten, %16 kontsumitzaile rekreazionalak ziren, erosteko inpultso indartsuak izan arren gutxieneko kontrola zutenak, %24 xahutzaileak zirela.



ERIC TENIN

Produktuak zure izena duenean

NUTELLA kakao krema poteak zure izena izatea nahi baduzu Facebooken bidez eskaera egin dezakezu. Renova enpresak ere paperezko zapietan bezeroak nahi duen mezua jartzeko aukera ematen du. Baina produktu pertsonalizatuak merkaturatzeko kanpainetan bete-betean asmatu duena Coca-Cola izan da. Freskagarrien multinazional erraldoiak ere internet bidez latak edo botilak pertsonalizatzeko aukera ematen du, baina eskaeren zain egon gabe, zuzenean izen propioak dituzten produktuak merkaturatu ditu. Kanpaina Espainiako Estatuan abiarazteko, Estatistika Institutura jo zuten multinazionalako ardura-dunek. Gizon nahiz emakume izen ohikoenak aukeratu zituzten latetan ipintzeko, izen gutxi batzuk ausaz aukeratu zituzten, euskarazko eta katalanezko izen batzuk ere erantsi zituzten denok gustura egon gintezen (leloa ere katalanez jartzeko eskaerari muzin egin arren), eta azkenik “tu abuela”, “tu novio” eta halakoak ere idatzi zituzten etiketetan, merkatuaren ahalik eta zatirik handiena hartzeko asmoz.

Kanpaina Australian egin zen lehenengoz “Share a Coke” (partekatu Coca-Cola bat) lelopean. Ondoren, Erresuma Batuan, Irlandan, Frantzia eta Belgikan egin zuten. Espainiako Estatuan kanpaina atzeratu egin zuten tabernetako kontsumoa bultzatzeko kanpainarekin bat egin ez zezan.

Kanpainak Australian lortutako emaitzak oso esanguratsuak dira. herrialde horretan freskagarriaren kontsumoak %7 egin zuen gora gazteen artean. Igoera izugarria da markak urte askotan merkatuaren zati handi bati eutsi diola aintzat hartuta. Baina emaitzak are ikusgarriagoak dira “branding”ari dagokionez, hau da, markarentzat izan dituen zeharkako ondorioei dagokienez. Prentsan eta interneten 18 milioi aipamen lortu zituen kanpainak, eta Facebookeko orriko trafikoak %870 egin zuen gora. Gainera markarekiko fidelizazio kanpainak ez du eperik; kontsumitzaile



Coca-Colak hainbat euskal izen ere erabili ditu bere azken kanpainan.

askok bere izena duen lata edo botila gordeko du, edo etxeko apal batean jarri eta, hala, Coca-Colak iragarkia bezeroaren etxe barruan izango du beti, produktuarekiko lotura pertsonal bereziarekin, gainera.

Izan ere, nahiz eta leloak produktua partekatze gonbitea egin, kanpainak ez du bereziki kontsumitzaileen altruismoa piztu. Izango dira lagunak edo senideen baten izena duen produktua propio erosiko dutenak, baina gehienek beren izena bilatzen dute. Kanpaina aipatzen duten interneteko guneetara jotzea besterik ez dago, iruzkinetan gehien errepikatzen den esaldia zein den ikusteko: “Nola lor dezaket nire izena duen lata?”. Kanpainak kontsumitzailearen egoa ukitzea lortu du, eta produktua erosterakoan erabaki arrazionalak uxatzea. Coca-Cola Iberiako presidente Marcos de Quintoren hitzetan, “emozioak arrazoia baino indartsuagoak dira; marketin emozionalak borroka irabazi du”.

letzat jo zituzten, eta, azkenik, biztanleriaren ia erdia, %49, kontsumitzaile utilitarioen taldean zeuden. 2010ean berriro egin zuten inkesta kontsumitzaile bizkaitarren artean, kontzeptuak eta taldeak apur bat moldatuz. Bederatzi urtetan menpekotasuna zuten kontsumitzaileen portzentajea %16,7ra igo zen, eta 2013 honetan %18,04raino iritsiko zela aurreikusi zuten. Tarteko bi taldeak batu eta “gainerosleak” taldean biztanleen %39,2 kokatu zen. Kontsumitzaile utilitario edo arrazionalen portzentajeak, aldiz, %49tik %44,03ra egin zuen behera.

Baina kontsumitzaile arrazionala definitzerakoan, ez dira erosterako erabaki erabat arrazionalak hartzen dituztenez ari. Horrelakorik ez omen dago; kontsumitzaile arrazionalak erosketa emozionalerantzko joera txikia eta autokontrol handia dira. Ondorioz, kontsumitzaile guztiek dute osagai emozionala; gakoa osagai horren neurrian eta kontrolean dago. Bestalde, inkesten emaitzen bilakaerak adierazten du gure kontsumo ohituretan arrazioa pixkanaka atzera ari dela eta emozioa, inpulsoa, aurrera.

Erosketa desmaterializatuak

INTERNET bidez gero eta gehiago erosten dugu. 2012an Espainiako Estatuko biztanleen %27ak erosten zuen sarean, 2010ean baino %12,5 gehiago eta 2007an baino %50 gehiago. EAE bosgarren tokian dago Estatuan internet bidez gehien erosten duten erkidegoen zerrendan. Eta gurean azken aldian goraka ari den fenomenoaren erakusten dute datuek: aisialdia eta ostalaritza zerbitzuak. Sareko erosleak %52,9ak bidaiak erosi dituzte, %41,6ak ikusizunetarako sarrerak eta %49ak bestelako aisialdia zerbitzuak. Horien atzetik datoz arropa eta kirol materiala (%30), liburuak eta aldizkariak (%17,7) eta elektronikako produktuak (%16,9).

Bada internet bidezko kontsumoak erosteko inbultsoa kontrolatzeko zailtasunak dituztenei mesede egin dakiekeela uste duenik. Zentzumenek garrantzi gutxiago dute sarean eta erosleak ez dituzte dozenaka korridore ibili behar nahi dituen produktuak aurkitzeko, tentazioak gutxituz. Baina aditu gehienek diote arriskuak onurak baino handiagoak direla.

Interneten ez da eskudirurik erabiltzen, eta produktua fisikoa denean ez da berehala eskuratzen. Dirua, produktua eta erosteko ekintza bera desmaterializatu egiten dira, arrazoirik gabe erostea askoz errazagoa da, eta produktua iristerako erosketa justifikatzeko beharra edo erru sentsazioa joanak dira.

Gainera, sarean eskaintzak eta beherapenak oso ohikoak dira eta interneteko salguneek aurrezte kontzeptuarekin jokatzeko dute. Prezio erdian dagoen produktua saskian sartuz gero, webguneak ordaindu beharreko prezioa letra normalean adierazi ohi du, aurreztutako kopurua, ordea, letra larri hangia goetan nabarmentzen du, kontsumitzaileak

“behar ez nuen zer-baitetan 50 euro xahutu ditut (edo gehiago letra txikian adierazi ohi dituzten bidalketa gastuak kontuan hartuz gero)” pentsatu ordez “50 euro aurreztu ditut” pentsa dezan.

Hala ere, internet funtsezko tresna da kolaborazio kontsumorako eta *prosumer* kontzeptua zabaltzeko. *Prosumer*-a ekoizle eta kontsumitzaile da, saltzaile eta erosle. Egia da internet ez dela ezinbestekoa trukeerako, bigarren eskuko produktuak merke erosi edo alokatzeko edo gastuak partekatzeko, baina aukerak asko zabaltzen ditu. Internet bidez errazagoa da, adibidez, behin bakarrik jantziko dugun arropa behin bakarrik erabili duenari alokatzea, oportetean joan nahi dugun tokian gurera etorri nahi duen norbait topatzea eta etxeak trukatzeko, edota egunero autoz gure ibilbide bera egin behar duen norbaitekin gastuak partekatzeko harremanetan jartzea.



Arrazoiaren krisialdia

Logikoa dirudi krisi ekonomiko garaian joera hori etengo dela pentsatzeak, baina datuek ez dute horrelakorik azaltzen. Kontsumitzaileak gastua gehiago kontrolatzeko beharra sentitzen du, baina ekoizle eta saltzaileek kontsumoari eusteko eta, ahal izanez gero, aregotzeko ahalegina egiten dute. Marketin eta publizitate estrategiak diseinatzeko dituztenek ezin dute krisi garaian arrazoiak baliatu, horrek kontsumoa jaistera eragingo bailuke. Horregatik, arrazoiak lausotzera eta zentzumenak horditzera bideratzen dituzte ahaleginak. Aire girotu gailuak kontsumi ditzagun isiltasuna saltzen digute, baina beste gailu

batzuei (zenbait xurgagailuri, esaterako) zaratara areagotzea beste funtziorik ez duten piezak erantsen dizkiete, kontsumitzaileak potentzia gehiago duela sinets dezana. Edo hotel batean gaudenean aire egokituaren bidez lurrin berezia zabalduko dute, ia antzematen ez dena, baina gure subkontzientean eragina duena. Nagusiki negozio gizon-emakumeak bezera dituen hotel kate suitzar batek geletan zabaltzeko lurrina sortzeko enkargua egin zuen. Perfumegileak altzairua, mendiko airea, izotza eta beste hainbat usain nahastu zituen, eta diru ukitu bat ere eman zion. Beraz, bezeroak, oharkabea, diruaren usainetan joaten dira lotara.

Etengabeko publizitate bonbardaketak eta azken urteotako zailtasun ekonomikoek kontsumitzaileen azala gogortu dute behar-bada, baina sokaren beste aldean sedukzio estrategia gero eta sofistikatuagoak ari dira tiraka.

Aurrezte, xahutzeko amua

Salmenta estrategia guztiak, ordea, ez dira hain sofistikatuak. Prezioa kontsumo arrazionalaren ezaugarri nagusietakoa da, eta hala ere kontsumo emozionalera daraman bidea zabaltzen du sarri. Kontsumitzaileei interneten, txinatarren bazarretan edo saltoki handietan zergatik erosten duten galdeztzen zaienean, erantzunak askotarikoak izan ohi dira: erosotasuna, ordutegia... baina erantzun ohikoena prezioak dira, aurrezteko aukera. Merkealdien edo eskaintzen amua irensteko arrazoi nagusia ere aurrezte izan ohi da.

Javier Garcés Prieto psikologoak azaltzen du saltokiek mekanismo estrategiko eraginkorak dituztelako kontsumismorako predisposizio psikologikoa aktibatzen dutenak. “Testuinguru horietan, azkenean kontsumitzaileak bere burua engainatzen du edo nolabaiteko kontraesana sortzen du ia beti. Adibidez, saltoki handi batera doa aurrezte-

Merkealdiak aurrezteko bidea dira teorian, baina praktikan kontrako emaitza dute maiz.



ko, baina barruan dagoenean badirudi aurrezteko nahia galtzen duela, arrazoiarekin eta zentzuarekin batera”. Eta klasikoa bihurtu den adibidea ematen du: salgaien kokapen estrategikoa. Premiako gaiak sakanatuta egon ohi dira saltokian, eta kontsumitzaileak behar duena erosteko azalera



Black Friday-tik Bariku Beltzera

BLACK FRIDAY Eskerregite Egunaren biharamuna da AEBetan, azaroko laugarren ostirala beraz, eta aurtun azaroaren 29an egokitu da. Terminoa Filadelfian sortu zen 1960ko hamarkadaren hasieran. Herritar asko, Eskerregite Eguna familiarekin pasa ostean, etxera itzultzen ziren ostiralean, eta beste asko Eguberritako erosketak egiten hasteko baliatzen hasi ziren egun hura. Horrenbestez, zirkulazio arazo larriak sortzen ziren Filadelfiako hirigunean eta bertako polizia Ostiral Beltza izena erabiltzen hasi zen. Hurrengo hamarkadaren erdialderako, terminoa AEB osoan zabalduta zegoen eta eguna Eguberritako erosketen sukarraren abiapuntu ofizial bilakatu zen. Saltokiek beherapen, eskaintza eta ordutegi bereziak eskaintzen zituzten. Urte askotan dendak goizeko 6etan ireki ohi zituzten. 2000ko hamarkadan ordua aurreratuz joan zen, 2011n saltoki nagusiek gauerdian zabaltzea erabaki zuten arte. Iaz Walmart kateak Eskerregite Eguneko iluntzeko 20:00etan zabaltu zituen ateak. Zenbait estatutan (Kalifornian, esaterako) ostiral hura jai eguna da funtzionarioentzat. Estatu gehienetan lan egun ofiziala izan arren, ordea, ikasleek zubia egin ohi dute eta enpresa pribatu gero eta gehiagok jai ematen diete langileei (saltokietan lan egiten dutenei ezik, jakina). Aurtengo Black Fridayko asteburuan, AEBetan soilik, 248 milioi erosle izan ziren eta, guztira, 57.400 milioi dolar xahutu zituzten.

Eskerregite Egunean oraingoz behintzat indioilarririk jateko ohiturarik ez dugun arren, biharamoneko ohitura estatubatuarra gurea iristen ari da. Hainbat saltoki eta frankiziek (Apple, Mediamarkt, El Corte Inglés) beherapen eta ordutegi bereziak eskaini zituzten, baita interneteko hainbat salgunek ere. Eta Mungian, esaterako, Bariko Beltza antolatu zuten.

Lekittoko Deabruak antzerki elkarteak piroteknia ikuskizuna eskaini zuen. Hainbat denda gaueko 22:00ak arte zabalik egon ziren eta deskontuak, zozketak, DJ-ak, pintxoak... prestatu zituzten bezeroentzat.

2012an Madrilgo Salamanca auzoko saltokiek hainbat ekimen antolatu zituzten Black Friday eguna medio. Baina aurtun ez dute halakorik egin, antolatzaileen esanetan, ekimenek arrakastarik izan ez zutelako. Beharbada AEBetako ilarak, masifikazioak eta liskarrak espero zituzten. Baina beharbada arrakasta tokiko saltoki txikiei bultzada bat emateko ekimen xumeak sustatzean datza, jatorria edo aitzakia gorabehera, eta AEBetako Ostiral Beltzaren eromenen erori gabe.



AEBetako Black Fridayko ohiko irudia.

handia ibiliko du, beste produktu asko ikusi, ukitu edo usainduko ditu, eta behar baino gehiago erosiko du.


Dena den, erosteko erabakiak baldintzatzen dituzten faktore emozionalak ez daude beti kontsumitzaileen kontrolatik kanpo. Esaterako, kontsumitzaileak marka bati uko egiteko erabakia har dezake, enpresa horrek Hirugarren Munduko haurrak esplotatzen dituela jakin duelako. Edo, alderantziz, bidezko merkataritza gune batera jo dezake, ekoizpen prozesuan giza eskubideak errespetatzen direla bermatzen diotelako edo ordaintzen duen dirua modu bidezkoagoan banatuko delako. Gurean, hizkuntza horren adibide garbia da. Euskaldun askok nahiago dute euskaraz iragartzen den edo testuak euskaraz dituen produktu bat erosi, horrek produktuaren kalitatean edo eroslearen pol-

tsikoan inongo eraginik izango ez duen arren. Baina hor ere, zaila da norberaren nahiak eta emozioak eta marketen estrategiek eragindakoak bereizten. Gero eta ugariegoak dira produktuak ingurumenarekiko konpromisoa duela adierazten duten kanpainak, prezioaren zati bat gaixotasunen sendabideak ikertzerako bideratuko dutela dioten iragarkiak...

Azkenean, salmenta estrategiek kontsumitzaileen garunean sartu, haien erabakiak aurreikusi eta nahieran manipulatzeko dituzten dirudienean, adituek betiko neurri soiletara jotzea aholkatzen dute, kontsumo ardura-tsuagoa jomuga: kreditu txartelak ahalik eta gutxien erabili, erosi beharreko gaien zerrenda etxetik eraman eta, elikagaiak erostera-koan, sabela ondo beteta joan. ■



**ELHUYAR
ANAIK**



Elhuyar efektua gehitu zaitez!

CAF
ELHUYAR
sariak 2013

74 **W**



DIBULGAZIO-ARTIKULU ORIGINALAK

Dibulgazio-artikulu orokorrak

2.000€

Egilearen doktore-tesian oinarritutako
dibulgazio-artikuluak

2.000€

ZIENTZIA KAZETARITZAREN ARLOKO LANAK

2.000€

ZIENTZIA GIZARTEAN SORKUNTZA-BEKA

5.000€

SORMENA

DIBULGAZIOA

ELKARLANA

DIZIPLINARTEKOTASUNA

Laguntzaileak



elhuyar

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hezkuntza Politikarako Gaitasunordetza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



**Bergarako
Udala**



«Euskalduna ez banintz, boto gehiago izango nituzkeela esaten zidaten Tuteran»

“Libre / ez dogmarik ez nagusirik gabe / katiximarik ez batere / nire izatea estutuko duen absoluturik ez batere / nire burua epaituko duen sententziarik ez batere / nire ametsak hilko dituen salbatzailerik ez batere / bizitza hesituko didan izorratzailerik ez batere. / Ziurtasunen bat / ziurgabetasun asko / ametsak bete zain / lagun mordoa / muxuak pila / samurtasuna gainezka / nire ninietako begiak / eta zu. / Horixe da poesia”,
Milagros Rubioren hitzetan.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco

Tuterako udaletxean hartu gaituzu. Zure etxea, esateko moduan, 1979tik hona baitzaitugu zinegotzi, lehenengo udal hauteskunde haietatik.

Ni beti izan naiz gizarte mugimenduetakoa. Halakoa nintzen orduan, eta halakoa naiz gaur egun ere. Garai hartan, Ezkerrekoen Batzarra eratu zen, bai Tuteran, bai Erriberan bertan ere. Hartan ari ginela, udal hauteskundeetan parte hartzea erabaki genuen, eta, bilera batean, nire izena eman zuen baten batek. “Mila, izan dadila Mila!”. Frankismo garaian ere lanean jardun nuelako, beharbada. Jakina, Francoren garaian, auzoetan zegoen mugimendua, baina ez ginen auzo-elkarte ere, guraso-elkarte baizik; erosketa otarra garestitzearen kontrako protesta izango zen, esate baterako. Gero etorri ziren protesta horiek mugimendu bihurtu eta auzo-elkarte itxura hartzea. Orduan bai, tiro poligonoaren kontrako mugimendua izango zen, feminismoaren aldekoa... Nekez onartu nuen hautagai izatea, alaba txikia bainuen. Dena dela, baietz esan nuen, ustez legealdi bat besterik ez zela izango. Proiektua abiara zi eta kito! Ez alferrik, hemen nago oraindik, erretiratzeko zorian. Azkeneko legealdia dut. 2015ean, kito.

Emakume gutxi orduan politikaren maila gutxietan ere...

Bai, ez da orain bezala, gizon-emakumeak orain ia erdibana ari baikara. Erdibana bai,

baina buruak gizonezkoak dira beti edo gehienean. Tuteran, esaterako, lehenengo udal hauteskunde haietatik hona bitarte izan diren eta ez diren hautagaitza guztiak hartu eta gureak baino ez du izan emakumezkoa buru. Hemen ez dugu alkate andrerik izan oraindik! Eta jaiei hasiera emateko suziria emakumezkoak bota zuenerako ere, nahiko lan ibili genuen. Hamaika txikikeria. Tuteran, esaterako, bada tradizio bat, Aingeruaren jai-tsiera [Piztuera igandeko ohitura zaharra Tuteran], mutikoek beste inork egiten ez zuena! Duela hiru-lau urte hasi dira neskak

NORTASUN AGIRIA

Milagros Rubio (Tutera, 1952) gazterik ari da mundu hobe baten alde lanean, gizarte mugimenduekin bat eginik. Jaioterriko udaleko zinegotzi da 1979tik, eta erretretan sartzekoa da legealdi honen amaieran. Nafarroako parlamentuko legebiltzarkide ere izan zen 1999-2003 bitartean Batzarrenaren izenean. Bloga ere bazuen, zartatu zioten arte. Ez du eraso bakarra: egin izan zizkieten pintadak, autoa erre... “68ko Maiatzaren alaba naiz, erdizka anarko, erdizka soziata, erdizka anti, erdizka pro. Zalantza da nire ziurtasun bakarretakoa. Feminista eta beste zenbait –ista; esaterako, antimilitarista, Bardeako Tiro poligonoaren kontrako Batzarrean. Literatura, adiskidantza, arteak eta naturaleza ditut maite”, zioen blogean, bere buruaren aurkezpen. Euskaraz ere mintzo da.





ere Aingeruarena egiten. Hamaika kontu, eta hamaika lan dugu oraindik eginkizun.

Zer dugu Tuterako zinegotzi izatea hainbeste urtez?

Hogeita hamabost mila biztanle ditu Tuterak, baina Erriberako hiriburu denez, egunez, ehun mila lagun inguru ere bildu ohi ditu. Tuterako zinegotzi izateak denbora eta interesa eskatzen ditu, biak. Zinegotzi izateak esanahi ezberdinak ditu, norberaren arabera. Batek bere burua erakunde bateko kideztat jotzen badu, besterik gabe, era jakin batera

jokatuko du. Gure kasuan, gizarte mugimenduekin guztiz loturik, guztiz bat eginik ikusten dugularik gure lana, are eta denbora gehiago eman behar dugu lanean.

“Gizarte mugimenduekin bat eginik”.

Ez dut beste modurik ikusten. Makina instituzionalak zu irenstea nahi ez baduzu, gizarte mugimenduetako parte izan behar duzu; bestela, erraza da iparra galtzea. Agintariak eta aginduek jasotzen dituztenak bereizteko moduan antolatuta dago politika. Txorakeriak dira hasieran, ikusgarri batera joateko sarrerak doan izatea, esaterako. Horretan ez dut kontzientzia kargarik: 79tik hona, inoiz ez naiz ikusgarri batera joan doako sarrera eskuan. Inoiz ez. Txorakeria dirudi, baina hortxe hasten dira “pribilegioak”. Haiei ezetz esan beharra dago. Instituzioari dagokion lana besterik ez egitea, ez du merezi. Funtzionarioei dagokien lan hori, eta merezimendu handiz egiten dutela esango nuke. Guk, aldiz, lan instituzionala ez ezik, beste lan bat dugu, gure sortzezko konpromisoa da, gizarte mugimenduekin batera lan egitea. Ezin dugu hori ahaztu, ezin dugu mugimendu horietatik urrundu.

Horretan ari zara zu Tuteran, Udalean, gizarte mugimenduekin bat.

Ni ez ezik, horretan dira Eneko, Patxi eta Ana Mari, lau kide baikara gure taldean. Gu, geure lanean, udal batzarra egiteak esan nahi du udaleko bilkuran ez ezik gizarte mugimenduekin ere biltzea, gaiak aztertzea, eztabaidatzea, ohar eta ekimen propioak erabakitzea, eta atzera udalera aurkeztzea. Denbora da, beraz, eta beste gauza bat ere bai: egiten duzunak balio duela, instituzioan beste inon ari ez direnek egiten duenak bezainbeste balio duela Tuterako jendearen bizimodua hobetzeko, hiriburu honetako giza harremanak eta azpiegiturak hobetzeko, ongizatea areagotzeko...

Badira urte batzuk hiritarren parte-hartzeak indar hartu duela. Gaiak, behintzat. Bateko eta besteko unibertsitateen ikastaroetan ageri da, garai batean ez bezala.

Ez dago hiritarren benetako parte-hartzerik, salbuespenak salbuespen. Tuterako eskarmen-tutik ari naiz, eta Nafarroako parlamentukotik. Han, hiritarren parte-hartzerik batere ez dago, izpirik ere ez. Inork lan-bilera batean parte hartzea ez da hiritarren parte-hartzea. Udala, berriaz, herritarrarengandik hurbilen dagoen instituzioa da, hurbiltasun fisiko horrek egiazko enpatia eragin beharko luke, baina ez da horrelakorik. Pentsatu ere ez. Nik, kontrakoa ikusi dut joan direneko hamarkada hauetan.

Kontrakoa?

Bai, instituzioek hiritarren parte-hartzeari lagundu beharrean, trabak jarri dizkiotela. Eta uste dut arrazoiak ere garbia dela: beren asmoak hondatuko ote dizkieten beldur dira politikariak. Beldur dira. Parte-hartzeari buruz teorizatuko dizute eta hau hori eta hura, parte-hartzea arautu egin behar dela esango dizute, nahaste-borrasterik gerta ez dadin. Arazoa hori balitz, ongi, parte-hartzea egiazkoa izan dadin akordioak iritsiko genituzke. Zailtasunik ere ez dago gaur egun, kontsultak modu birtualean ere erraz egin litezke, baina parte-hartzea nola araututa dagoen ikusi, eta ez sinestekoa da. Informazio batzordeak, jendearentzat itxita! 79an hasi ginenean, esate baterako, osasunari buruzko batzordearen ardura genuen. Zer egin genuen? Araua hautsi eta osasunari nola edo hala loturik ari ziren talde guztiak gure bilkuretara deitu: denon artean egin genuen lan, batzordetan bildurik.

Nahaste-borrasterik gabe...

Eta desmasiarik gabe. Jendeari azaldu, eta arrazoiak entzuten daki. Kultura batzordea ere gure gisa hasi zen lanean. Hiritarren parte-hartzea benetakoa zen. Oraingo arauak,

Kontziliazioa lehen

"Orduan ez zen kontziliazio hitza erabiltzen, baina berdin-berdin bizi genuen arazoa. 2 urteko alaba nuela hasi nintzen Tuterako udalean. Gizonezkoek politikan parte hartzea normal jotzen zen. Emakumezkoak, berriz, gutxi ginen. Ni, gainera, bi urteko neskatiko baten ama izan! Jende askok ez zuen nire erabakia ententitu. Tuteran, bestalde, gizarte kontrola estua zen... ez zen erraza izan".

berriz, ez du zirrikiturik uzten: udalbatzak gaiak aztertu dituenean, botoak eman dituenean, gaia itxi duenean, herritarrari galdera: "Jendarteko inork hitz egin nahi du? Ezer esan nahi du inork?". Hori da hiritarraren parte-hartzea? Agintariei ez zaie hiritarren parte-hartzea axola. Ez dago. Parte-hartzea murrizten ikusi dut. Garai batean, Tuteran, udalbatzak itxi egin zitzaizkien herritarrei. Jose Mari Lakarra zena eta biok ginen orduan gure taldean zinegotzi. Hiru urte eman genituen udalbatza guztietan zutik eta kartela paparretik zintzilik, udaletxea hiritarrei itxi zitetelako.

Gaur egun, hiritarrari parte hartzeko aukera emango balitzaio, parte hartuko luke?

Horixe da pena. Desaktibatu egin dute gizartea. Urte askoan horretan saiatu dira, parte-hartzea boikotatzen, eta horrek gizartea desaktibatu eta zapuztu du. Normala! Nik badut esperantza, mugimendu txikiak bildu eta aurrera egingo dugula, baina ez dago erraz. Gaur egun, hala ere, eta giroa halakoa bada ere, mekanismoak abiarazi behar ditugu, parte-hartzea benetakoa izan dadin, eta udaletik hasita. Txingarra zaindu behar dugu, etorriko da sugeldoa hauspotzeko garaia.

**EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN
ETA GUK ZURI ERE OPARI
SU TA GAR TALDEAREN
'BIZIRIK GAUDE'
DISKO BERRIA**

Tel.: 943 457 250
harpidetza@gaztezulo.com

gaztezulo com
HI ETA HIRE MUNDUAK



BEHIN OPARITU
11 ALDIZ JASO
URTE OSOAN GOZATZEKO!

11 ALDIZKARI JASOKO DITU(ZU) ETXEAN.
MUSIKA, ZINEA, SEXUA, LITERATURA, INTERNET,
ARTE ESZENIKOAK, KIROLA, ARGAZKILARITZA...





Aldatu

“Jendeak esan ohi duena: ‘Ez nuke iraganean egin dudan ezer aldatuko!’ Ni ez naiz iritzi berekoa. Ez diot uko egiten neure historiari, baina gaur, erabaki beharko banu, denbora gehiago emango nukeen nire alabarekin. Ez dut esateko erreparorik. Horrelaxe da”.



Zu sugeldoan, su bizian beste batzuk. Castejondik Iruñera bitarteko lanak ikusi ditut, abiadura handiko tren...

Desastrea! Uharte bat egiten ari dira. Trenbide zati horrek ez du jarraipenik izanen... Azalpenik ez du, baina Gobernuan daudenek beren gisako azalpena ematen diote asmo horri, esanez geroan, noizbait, tren hori helduko dela, eta tarte hori eginga ez badugu, “deskonektaturik” geratzeko arriskua dugula. Hortaz, etorkizunari begira ari direla lanean, konexioa egin beharra dela. Nik, ordea, uste dut aginte printzipiotik asko duela oraingo Gobernuak jendearen esanak. Batean eta bestean ari dira murrizketa bortitzak egiten, han eta hemen, eta, aldiz, hainbeste diru gastatu nahi dute proiektu horretan, etorkizunean “deskonektaturik” ez izateko. Irrazionala da! Ez dakit horrek ondorioz izango duen, baina beharko luke. Jendea autoan edo autobusean doalarik, harriturik da obrak ikustean. Lehengoan, esateko, autobusean gindoazen Tuteratik Iruñera, eta jendeak ez zion obrari begirik kentzen. Ez zen jende sobera politizatua, oinezkoa besterik. “Eta nondik heldu da lan hau? Eta nora doa?”, galdetu zidaten. “Ez, ez, hau ez doa inora. Hor geldituko da lan hori!”.

Jendeak ez zekien, jendeak ez daki?

Ez daki, hori da makurrena. Uste dugu guztiok irakurtzen ditugula egunkariak, guztiok ezagutzen ditugula datuak... baina ez da horrela. Ez dakit jendea jabetuko den nolakoa den obra hori, zenbat diru ari diren alferrik gastatzen.

Euskaraz hasi gara, euskaraz egin ditugu lehen hitzak. Esana zigan Jose Ignazio Lakastak, bazenekiela euskaraz...

Jose Ignazioren [Lakasta] kontuak! Tuteran ez gara asko ez, euskaraz dakigunok. Baina egia esan, gero eta gehiago gara. Gazteen artean, batez ere. Argia ikastolako neska mutilak dira, jakina. Adin batekoak, berriz, ez gara jende parrasta, baina bada multzo bat, euskaraz mintzo dena. Horien artean, batzuek, ikasi dugunok, gutxi gorabehera hitz egiten dugu. Beste batzuk kanpotik Tuterara etorritakoak dira. Hor duzu SKF enpre-

Kontziliazioa orain

“Idealik ez dago, baina gaur, esaterako, garai batean baino aukera handiagoak ditugu lana eta familia kontziliatzeko. Hasteko, dena abiarazi behar zen garai hartan. ‘Militantzia bikoitza’ esaten zuten, emakumeaz eta politikaz ari ziren, noski. Gero, ‘militantzia hirukoitza’, esaten hasi ziren: ‘euskalduna, emakumea, eta politika’. Eta, azak ontzeko, baita laukoitza ere, pentsatzen nuen nik neure artean, gizarte mugimenduetan, udal erakundean, etxean... Leku guztietan ari ginen. Uste dut gaur aurrera egin dugula, neurri batean behintzat. Neurri batean!”.

sa, Eibarretik Tuterara etorritakoa 70eko hamarkadaren hasieran nonbait. Haien artean, batzuk euskaldunak ziren.

Argia ikastolaren emaitzarik ikusten duzu, beraz?

Bai, eta ez bakarrik gazteen artean. Ikastolaren ingurune osoa hartu behar duzu kontuan, euskaldun mordoxka: irakasleak, laguntzaiak. Gurasoen artean ere baduzu euskaldunen bat edo beste... Nik, Argia ikastola, SKF eta gau-eskola jarriko nituzke euskaltasunaren oinarri Tuteran. Eta gau-eskola aurretik izandako emakume bat, Carmen Añon, euskaraz erakutsi baitzuen Tuteran, Erlojuaren Etxean, orduan abandonatuta baitzegoen etxe hori [egun, bertatik botatzen dute jaien hasierako txapligua]. Horiek dituzu, nirekiko, euskararen haziak Tuteran. Eta ari da fruitu ematen.

Carmen Añonekin hasi zinen zu euskaraz ikasten. Haren etxean. Gero, handik eskola publiko bateko gelara joan ginen. Elvira España ikas-texera. Carmen Añonekin batera, Kinku –Zinkunegi zen, inondik ere–, eta neska bat, Cristina, izan genituen irakasle.

Jose Ignazio Lakastak esan zigan: “Garai batean, Tuteran zioten Milagros Rubio ‘euskaltasunera’ aldatu zela”.

Horrek ez du gauza bat besterik esan nahi: alegia, hemen, gehiengoaren kultura erdaldu-na dela eta ni ere kultura horretakoa nintzela. Euskaraz ikasten hasi nintzenean, eta neure burua *vasquista* agertzen, bada, jendeak ez zuen bere burua nekatu nahi izan; ñabardurarik ez, “bata ala bestea” zen haien aukera, eta nik, aldiz, Nafarroako bi hizkuntzak integratu nahi nituen, bi munduak. Tuteran, askok, euskaltasuna hemendik kanpokoa zela uste zuten. Esaten ere zidaten: “Euskalduna ez bazina, boto gehiago izango zenituzke!”.

Kar, kar, kar...

Hitz horiek, ordea! Ez zidan jende gutxi esan ere. Makurrena, arrazoi zutela. Baina nork bere bidea du, eta nik neurea. ■



BLOGETAN! LEHIAKETA

Euskal blogari onenen bila

Azkue Fundazioak antolatu du *Blogetan! Euskal blogariak lehian egitasmoa* eta Argia du laguntzaile. Martxoaren 6an, bost sari banatuko dira euskarazko blogik onenen artean. Urtarrilaren 26a arte dago aurkezteko aukera.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

AZKUE FUNDAZIOAREN ETA ARGIAREN helburua lehiaketa honen bidez sarean euskarazko edukiak areagotzea da. Bestalde, dagoeneko jo eta su blogetan dabilzanezi eta hasiberriei kuraia eman nahi diete. Gorka Bereziartua Argiako kazetariak egitasmoaren aurkezpenean esan zuenez, “bestelako dimentsioa eman nahi zaio bakoitzak bere blogarekin euskarari egiten dion ekarpenari, eta gainera, oraindik bloga idaztera animatu ez diren euskaldunentzat akuilu izango da”.

Bost sari banatuko dituzte. Lehenengoan kulturari lotutako blogik onena sarituko dute: zinemaz, literaturaz, modaz, sukaldaritaz, enologiaz, musikaz... idatzitakoak. Bigarrenen gizarte eta politika arlokoek izango dute tokia: kazetaritza, historia, humanitateak, ekonomia, hezkuntza, zuzenbidea. Hirugarren sariak aisialdiko gaiak izango ditu kontuan: kirola, bidaiak... Laugarrenen berriz, zientzia eta teknologia: osasuna, informatika, arkitektura, natura... Bosgarren saria berezia izango da, 2013an sortutako euskarazko blog onenarentzat izango da.

Bost saridunek Bernat Vidal artistak Azkue Fundazioarentzat bereziki diseinatutako garaikur artelana jasoko dute, eta gaikako saridunek 200 euroko diru txekia eskuratuko

dute Fnac dendan gastatzeko. Bosgarren saria, euskal blogari berriarena, Argiak eman- go du eta saridunak sari bikoitza jasoko du: batetik, ARGIA aldizkarirako urtebeteko harpidetza eskuratuko du, eta bestetik, Argiako hainbat esparrutan kolaboratzeko aukera izango du, hala nola, paperean, interneten eta multimedia alorrean.

Nola bozkatu

Gustukoen duzun bloga bozkatzeko bi modu egongo dira: batetik, www.blogetan.com webgunean erregistratuta egunero blog baten aldeko botoa eman ahal- ko da. Bestetik, twitter

sare sozialean #blogetan etiketa erabilia eta jarraian bozkatu nahi duzun blogaren URL helbidea idatzita, botoak kontatuko dira. Twitterrez, webgunean bezala, egunean blog bati eman ahal-ko zaio bozka. Publikoaren bozkek %50 balioko dute eta adituek osatutako epaimahaiarenek beste erdia. Azken fasean, hiru finalisten artean epaimahaiak aukeratuko ditu bost irabazleak.

Sari banaketa eta jardunaldiak

Sari banaketa martxoaren 6an izango da, blogei buruzko jardunaldietan, Bilbon, Euskara- ren Etxean. Jardunaldi horietan blogak komu- nikazio teoriko-praktiko batetik landuko dituzte, ondoren modu ez-profesionalean diharduten blogariak haien bizipenetatik abia- tuta arituko dira, eta bukatzeko euskal bloga- rien artean erreferentzialak direne- kin mahai-ingurua egingo da.

Lehiaketako irabazleek jardu- naldien bukaera jasoko dituzte garaikurrak. ■



www.blogetan.com

Lehiaketan parte hartzeko edo lehiakideak bozkatzeko www.blogetan.com webgunean sartu. Urtarrilaren 26ra arteko epea dago lehiaketan parte hartzeko eta urtarrilaren 27tik otsailaren 16ra bitartean bozkatzeko aukera izango da.

Garai gorrietan Garai Berria

Argindarrik apenas duten arren, Siriako lehen agerkari kurdua argitara eman du boluntario talde batek.

| KARLOS ZURUTUZA |



EZ DA SAILIK FALTA: Albisteak daude, bai eta Iritzia, Gizartea, Kultura eta, jakina, Kirolak. Irakurleak estreinakoz *Nu Dem* (kurdueraz Garai Berria) begizatzen duenean, beste berri-erper bat baino ez dela pentsa dezake. Baina kurdueraz idatzitako egunkari honetako langileek ederki asko dakite zenbat zailtasuni aurre egin behar dioten: argindar, internet, errotatiba eta soldata falta, besteak beste. Ez da erraza.

“Hamabosteroko zenbakia kaleratzea sekulako erronka da guretzat, baina hauxe da gerra garaiotan gizarteari egin nahi diogun ekarpena”, dio editore buru Qadir Agid-ek, Kamixlo hirian, Siriako Kurdistango hiriburuan. Agidek, familiak eta irakasle lanak uzten dion denbora eskaintzen dio egunkariari. Pasa den maiatzean 3.000 aleko argitaldia kaleratu zuten aurrenekoak. Apustu ausarta da oso, Assad familiak –Hafezek lehenengo eta Bashar semeak gero– kurduen kontrako politika gordina ezarri ohi baitute: hizkuntza kurduaren gaineko debekua, populazio lekualdatzeak eta arabizazio kanpaina bortitzak dira horren adierazle.

2011n Siriako gerra hasi zelarik, kurduak neutraltasunaren alde egin zuten. “Hirugarren bide” horrek gobernu nahiz oposizioaren aldetik liskarrak ekarri arren, 2012ko uztailean kurduak Siriako iparraldeko euren eskualdea hartu zuten kontrolpean.

Herriarentzat lanean

Eten luze baten ondotik iritsi da, azkenik, argindarra. 25 urteko Evin Lili gazteak berehala piztu ditu ordenagailua eta sakelakoa. “Amak Irakeko Kurdistanera alde egin zuen eta neuk zaindu behar ditut orain lau anai-arreba gazteak”, dio neska kurduak. Aukera polita da Lilirentzat *Nu Deme*n lortutako lana, herriarentzat aritzeaz gain, kazetaritzan trebatzeko parada. “Nire lanean zein den gauzarik zailena? Kanean jendearengana gerturatzea. Hiria mukhabarat agentez [siriarrak poliziaz sekretuak] gainezka dago eta herritarrak beldur dira”. Segurtasun eza batetik eta bizitzaren kostua bestetik, gero eta zailagoa da hirian gelditzea bertako familientzat. Gerra piztu zenetik hiru aldiz igo dira hainbat oinarritzko produkturen prezioak.

Nolanahi, Kamixlok ez du gaurdaino Alepo edota Homs hirien patu bera sufritu. Haien aldean bareagoa du bizimodua eta biztanleek ez dute gobernu eta oposizio talde anitzen arteko su gurutzatua bizi.

Bandera eta ikur kurduak teilatu eta hiri inguruko murrutetan erraz ikus badaitezke ere, oraindik Assadarren kontrolpean daude hiri erdigunea eta aireportua. Egunero hegaldi batek lotzen ditu Damasko eta hiri kurdu hau.

Damasko eta PYDen (Siriako kurduen alderdi nagusia) arteko pakto sekretu baten



inguruko zurrumurruak zabaldu dira. Baina Salih Muslim PYDeko burukideak ARGIAri azaldu dionez, “ez dago inolako itunik, Assadek ez zuen Siriako gutxiengo indartsuenarekin beste fronte bat ireki nahi; besterik ez dago”. Milizia kurduaren bozeramaile Redur Khalil-ekin ere hitz egin dugu. “Gure indar militarrek ez du Assadenarekin inolako harremanik izan”, zioen PKKko gerlari ohiak. Yekineyen Parastina Gel-eko (herritarren babeserako unitate izenaz itzul daitekeen miliziako) buruak zera azpimarratu du: “Gure arazorik larriena Turkiatik datozen jihadistek sortzen dutena da”.

Independentziaren prezioa

Alan Hassan da *Nu Dem* egunkariko beste langileetako bat. Lanerako bidean, Bashar-en aitaren eskulturaren ondotik igarotzen da egunero. Erregimenaren paramilitarren patrol eta kontroletara ohituta dago. “Maskarak jantzita ibiltzen dira, hiri inguruan 4x4 autoetan, Siriako ikur handiak astintzen”, dio.

Gaurko lana lehenago bukatu du Hassanek, kurduerazko gaitasun agiri azterketa egitera joateko. Bere antzera, asko dira azken bi urteotan kurdueraz idazten hasi direnak. “Lan handia eskatzen du idazten hasteak. Izan ere, gure aldaera den kurmanjieraz idazteko alfabeto latindarra behar dugu, baina Sirian arabiarra da erabiltzen den idazkera bakarra”. Hassanek sail arabiarra editatzen du aldizkarian, eta politika eta kirol gaietan ere aditua da.

Argindarra moteltzen hasi da berriz eta kandelak piztu ditu lanean jarraitzeko. Hozan Hadidek koadernoan idazten du orain, linternaren argia lagun duela. “Damaskotik alde egin nuen eta Herri-lan Ingeniaritza ikasketak utzi behar izan nituen. Baina inguruko suntsitze honetan ez nuen amore eman nahi”.

Hadidek kazetari lana beste zaletasunekin tartekatzen du, poesia eta rap-a tartean. Oraindik eskarmentu txikia badu ere, independente

Ezkerrean, Massoud Hamid eta Alan Hassan kazetariak, azken edizioa ikuskatzen. Argi indarraren eskasia dela-eta, kandela argipean lan egin behar dute maiz (eskuineko irudian).

izatearen ordainaren jakitun da: “Berdin da zer idatzi edo nor elkarriketatu, kritika berbera datorkigu beti sektore jakin batzuetatik”. Siriako kurduen arteko liskar politikoei buruz onartu du zatiketak badirela, bertako jendea Turkia eta Irakeko alderdi kurduekin lerrotuta dauden heinean. Aitzitik, etsai beraren kontra borrokatu beharrak kohesioa ere ekarri duela dio. Egun, Kurdu Asanblada Gorena da eskualdeko aginte organo nagusia.

“Ez dugu etsiko”

Eguneko lanaldia bukatu eta kazetariak terrazan bildu dira. Begi gorrituek ere atsedena hartu dute, hiriko gauaren iluntasunari so. Proiektua gidatzen, 33 urteko Massoud Hamid dugu. Arratseko azken tea hartzeko garaiz iritsi da. 2004an, Damaskoko Unibertsitatean azterketa egiten ari zela, siriar poliziak atxilotu eta Estatuaren kontrako krimena egotzi zioten, interneten manifestaldi baten argazkia argitaratzeagatik. Hiru urteko espetxe zigorra ezarri zioten. Mugarik Gabeko Erreportariak elkarteak egoera salatu eta saria eman zion 2005ean, oraindik kartzelan zegoela. Frantzian babestu ostean, Hamid 2011n itzuli zen Siriarra, iraultzaren momenturik gorienean. Orditik kementsu ari da, Parisen doktoretza ikasketak

eta *Nu Dem*eko lana aurrera eraman nahian. “Badira Sirian kurduerazko beste argitalpen batzuk ere, baina normalean fotokopia bilduma hutsak dira”.

Inprimategirik gertukoena Iraken dago eta Hamidek 3.000 aleko argitaraldia ekarri berri du Dohuketik, Irakeko Kurdistandik. “Hilean bitan muga zeharkatu beharrak gastu eta nekeak ekartzen ditu”, kexu da.

Bestalde, proiektuaren kostua handia dela dio: alea 50 siriar libratu (30 zentimo) saltzen da baina hura inprimatzeak 65 balio du. Hala ere, argi dauka Hamidek: “Ez dugu etsiko. Siriako kurduak merezi dute benetako egunkaria, munduko beste edozein irakurlek merezi duen lez”. ■

“Hamabosteroko zenbakia kaleratzea sekulako erronka da guretzat, baina haxe da gerra garaioan gizarteari egin nahi diogun ekarpena”

**Qadir Agid,
editore burua**



Taldean egindako liburua

Liburuak argitaratzeko orduan sortzen diren traba ekonomikoei aurre egiteko, elkarlana tresna eraginkorra izan daiteke. Hala erakutsi dute Bergaran. Aitor Arantzabalek Michele Angiolillo anarkista italiarrari buruz idatzitako liburua auzolanean muntatu zuten udaberrian, herriko gaztetxean. Udazken honetan, auzolanera deitu zuten beste behin, bigarren edizioa prestatzeko.

| MARTIN VICIOSO |



Idea sortu zenetik, jende askok hartu du parte. Herritar bakoitzak liburuaren 56 orrialdetako bat muntatu zuen eta ondoren Gasteizko Irrintzi inprimategian forma eman zioten.

MICHELE ANGIOLILLO pertsonaia esanguratsua da Bergaran. Militante anarkistak Antonio Cánovas del Castillo politikari espainiarra Arrasateko Santa Ageda bainutegian erailteagatik heriotzara kondenatu zuten. Bergarako espetxean igaro zituen azken egunak eta zigorra bertan ezarri zioten. Gaur egun, erai-kin hura ez da presondegia, gaztetxea baizik, eta antolatu duten liburutegiak Angiolilloren izena darama.

Aitor Arantzabalek, arreta handiagoa merezi duen pertsonaia dela iritzita, Angiolilloren inguruko liburua idazteari ekin zion. Argitaratzeko zituen aukerak aztertzerakoan, auzolanarenak konbentzitu zuen gehien. Parte hartu zuen herritar bakoitzak liburuaren 56 orrialdetako bat muntatu zuen eta ondoren Gasteizko Irrintzi inprimategian forma eman zioten. Ekonomikoki hautu onena zela onartu arren, idazleak ekintzari balio sinbolikoa ematen dio. Izan ere, bere

ustez Bergarako herriak “zorra du Angiolillo-rekin” eta herritarrek bere historia gehiago ezagutzeko balio izan du.

Elkarlanean gauzatutako proiektua

Auzolana, bere horretan, muntaketa fasea izan da, eta Arantzabal dugu liburuaren egile. Hala ere, idazleak azpimarratu du emaitza prozesu osoan eman den elkarlanaren ondorio dela. Ideia sortu zenetik, jende askok hartu baitu parte. Hasieran, lau gazteren artean ekin zioten proiektuari Angiolillori buruzko dokumentazioa bilduz. Horretan, Koldo Izagirre idazlearen laguntza izan zuten. Pasaitarrak 1996an *Nik ere Germinal! egin gura nuen aldarri* eleberria kaleratu zuen. Bertan, militante italiarraren bizitza aipatzen du. Ondoren, kartzelan sartu zuten Arantzabal, eta orduantxe idatzi zituen pasarte gehienak. Senitartekoen eta gertukoaren laguntza beharrezkoa izan zuen kartzelatik dokumentazioa sartu eta ateratzeko. Beraz, kolektiboak indar handia izan du lan honetan. Egileak berak onartu duenez, “protagonista bakarra Angiolillo da”. Elkarlanari esker hark egindakoa jaso eta aurkeztu dute.

Liburuaren lehen ediziotik 260 ale inprimatu zituzten, baina hilabete gutxi batzuetan agortu dira denak. Horregatik, irailean bigarren ediziorako auzolanera deitu zuten berriz, beste 300 ale kaleratzeko asmoz. Gainera, argitalpen zainduagoa izango da oraingoa. Idazkera berrikusi dute, eta gehigarriak erantsi dizkiote. Esaterako, Koldo Izagirreren poemak, liburuaren historia laburbiltzen duen testua eta Fly Shit musika talde bergararren bi abesti. Aipatzekoa da obraren aurkezpen ekitaldietan auzolanaren garrantzia azpimarratu dela, horma-irudietan “Arantzabalek idatzitako eta denon artean egindako” liburua dela argi utziz. ■





Haren lan kideek torturaturiko goardia zibil bat zara;
Alzheimerrak jota zaudete, eta komandokide HIESdunak
kontatu dizu biktimen baten aita* bortxatu duzula kartzelan.

* gor-mutua bera

Aire ttun ttikitun
Aire ttun aire doinuən

zuek ez bazarete kontentak,
errua ez daukagu ez guk!





**June
Fernández**



KAZETARIA

Biktimak

ASKO DA feministok indarkeria sexistari buruz dakiguna. Gizarteak normalizatzen dituen jokabide eta eraso matxistak azkar eta argi identifikatzen ditugu. Biktimei laguntzeko baliabide anitz ezagutzen ditugu, babesa eskatu dezaten, egoera salatu dezaten. Baina, bat-batean, ohartu gara gu garela biktimak, eta bat-batean indarkeriari izena jartzea, salatzea, babesa eskatzea, ez da hain erraza.

Agian, norbaitek pentsatuko du feministok informazio hori guztia izateagatik ez dugula indarkeria matxistarik bizi. Tamalez, ez da hala. Indarkeria matxista motaren bat (bikote esparruan, zein beste gizon anitzen partetik sexu jazarpena) bizi izan duten feministekin luze hitz egin dut azken boladan, eta argi ikusi dugu denok lotsa eta errua sentitzen ditugula, feminista izanda egoera jakin bat bizi izanagatik edo gustatuko litzaikekeen indarrarekin ez erantzun izanagatik. Informazio eta babes asko izanda, hala ere, egoera salatzeke gai sentitzen ez bagara, oso koldar sentitzen gara. Jabekuntza tailerrak ematen ditugunok eraso baten aurrean burua makurtzen baldin badugu, benetan iruzurti sentituko gara.

Askok beren burua profeministatzat daukate, sentiberak dirudite, maskulinotasun eredu hegemonikotik aldentzen saiatzen dira. Horrelako “gizon berri” batek jazarpen edo tratatu txar jarrerak dituenean, are eta zailagoa da jendaurrean euren mozkorra kentzea eta eraso egin digutela kontatzea

Eta gure baitan diskurtso feminista biktima guztiek sentitzen dituzten beldur eta zalantza berdintsuekin nahasten da: “Esajeratzen ari ote naiz? Nire errua da egoera horretan bukatzeagatik? Salatu egiten badut, ez al da okerrerako izango? Biktimaren paperean gehiegi sartzen ari ote naiz?”. Erasotzailearekiko enpatia

momentuak ere izan ahal ditugu. Benetan arraroa da: arrazionalki badakigu indarra, babesa eta baliabideak ditugula, baina hala ere beldurra sentitzen dugu. Oso txiki sentitzen gara, oso blokeatuak, eta feminista kaxkarrak.

Gainera, normalean giro ezkertiarreko gizonak ez dira erasotzaile tradizionalak. Askok beren burua profeministatzat daukate, sentiberak dirudite, maskulinotasun eredu hegemonikotik aldentzen saiatzen dira. Horrelako “gizon berri” batek jazarpen edo tratatu txar jarrerak dituenean, are eta zailagoa da jendaurrean euren mozkorra kentzea eta eraso egin digutela kontatzea, gizarteak eraikitako estereotipoan sartzen ez direnak erasotzaile matxistak direla sineste. Maiz gizon hauek ez dute tratatu txar fisikorik ematen (eta horiek dira gizarteak zalantza gabe indarkeria bezala identifikatzen dituzten eraso bakarrak) baina gure auto-estima akabatzen dituzten eguneroko jarrera bortitzak dituzte: kontrol jarrerak, xantaia, sexu dominazio jarrerak, gutxiespen komentario mingarriak... Ageriko markarik uzten ez duen indarkeria matxistaren aurrean askok esango dute hori bikote gatazka pribatu bat dela, indarkeria dela esatea gehiegizkoa dela edo mutil gizajoak jarrera desegokia izan duela baina terapian dagoela.

“Matxirulo infiltratuak” izendatu ditugu berdinzale mozkorra daramaten gizon matxista ezkertiarrei, eta gero eta feminista gehiago hasi dira gizon horiek identifikatzeko gakoak ematen eta gizarte mugimenduen barruan erasoaren kontra egiteko estrategiak proposatzen. Errepikatu ohi dugu ez dagoela biktimaren profilik, baina askotan badirudi beste emakumeak direla biktimak, eta guk biktima horiek laguntzeko eta erasoei beldurrik gabe aurre egiteko prest gauden super-heroiak.

Agian, guri gertatzen zaigunari buruz gehiago hitz egitea izan daiteke emakume biktimaren estereotipo hori gaingintzeko eta emakume guztion artean indarkeria anitzekin bukatzeko bide sendoa. ■



**Ainhoa Larrañaga**

♦ MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Fagor: auto eraketaren higadura

ARIZMENDIARRETAK 1956an ekin zion bere proiektuari. Enpresa kapitalistak nagusi ziren garaian, bere lehen saiakera Union Cerrajeran egin zuen; enpresako ugazabengana jo zuen, langileek enpresako erabakietan ahalmena izatea eskatzeko. Eskerak jaso zuen ezeztaren aurrean, hartu zuen auto eraketarako bidea. Gizarte auto eratuago bat lortzea helburu zuen proiektu berriari, ilusioz eta indarrez ekin zioten On Jose Mariak sortutako Arrasateko Eskola Politeknikoko bost ikaslek: Usatorrek, Larrañagak, Gorroñogoitiak, Ormaetxeak eta Ortuibaik.

Horretarako lehen harria izan zen ULGOR; egun oraindik ere askori entzungo diogu, Fagor Etxetresnak kooperatibari, ULGOR deitzen. Barrura begira, enpresa demokratikoa lortu nahi zuen Arizmendiarretak, bere hitzetan, langileen adin nagusitasuna lortu behar zen. Bazkideak izan behar zuen kontziente eta erantzule, proiektu kooperatiboak eskatzen zuen erabakiekiko. Eta kanpora begira, justizia soziala lortzeko gizarte eraldaketa zuen ipar. Auto eraketaren potentziala, norbere ahalmenetik abiatuz, beharrak detektatu eta hauei erantzuna ematean zetzan. Lortu zuen bere helburua eta horri esker ditugu Arizmendi ikastola, Mondragon Unibertsitatea, Lagun Aro, Eroski, Euskadiko Kutxa... gizarte auto eratu propioa.

Baina, krisi globalak Fagorreko krisia agerian utzi du. Hamaika ahulezia. Begiratu desberdinetatik egin genezake gertatutakoaren azterketa, baina bazkide izaeran ikusi dudan ahuleziari erreparatu

nahi diot. Bazkideek agerraldiatarako izan duten bulkada zaila da ulertzen, ez baita jokabide kooperatiboarekin uztartzen erraza.

Bazkideak urrundu dira erabaki guneetatik; boterearen demokratizazioa ez da ondo kudeatu. Pentsa daiteke, tentsioa galdu dutela eta euren ardura maila delegatu egin dutela. Ez zaie utzi euren erabaki ahalmena kudeatzen ala ez dute nahi izan. Batzuek ez dutelako informazioa eta erabaki ahalmena sozializatu, edo, besteek hartu nahi izan ez dutelako. Tekno-egitura eta sozio-egituraren arteko lehian, lehena atera da irabazle, arrazoiak arrazoi.

*Bazkideak urrundu
dira erabaki
guneetatik; boterearen
demokratizazioa ez
da ondo kudeatu*

Fagorreko bazkideek zein gainerako kooperatibistok, kooperatibismoak eskatzen duen exijentzia sakontzeko erantzukizuna daukagu. Horretarako, ardura postuetatik, gainerako bazkideekiko komunikazioa zaindu beharra dago. Eta bazkideok geure ardura berrartu beharra daukagu, nerabezarotik, Arizmendiarretak eskatzen zuen adin nagusitasuna berriro iritsi arte. Fagorrek izan behar du irakasgai, kooperatibismoaren muinera itzultzeko eta auto eraketak exijitzen duen ardura berrartzeko. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK Erreferendumei jarriak



XDZ

**Beñat Gaztelumendi
Aranoa**

♦

Doinua: Agur sagar beltzaran.

Herri bat noiz elkartu
eta noiz ebaki
galdetu behar zaio
han bizi den bati
galdetzea lehenengo
pausua izaki
zer behar den galdetzen
duenak badaki:
herritarrek hitz egin
eta erabaki.

Nahiz batzuentzat izan
min bat eratzea
Donostiatik irten
edo geratzea
beren eskubidea
da aukeratzea;
demokrata batentzat
zer da eskatzea
Igeldok nahi duena
errespetatzea?

Eskozian datorren
erreferenduma
edo Katalunian
aurkeztu zaiguna
iruditzen bazaizu
bidexka iluna
zer da arazo gisa
sentitzen duzuna:
galdera egitea
edo erantzuna? ■



Rosa Maria Martin Sabaris

EHUKO IRAKASLEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN ADITUA ♦



INIGO AZKONA

Galderarik?

PROKRASINATZAILE amorratu honek izan dezakeen txarrena lerro hauek idazteko denbora luzea izatea da. Orri zuria niri begira geratzen da. Hasieran pozik, zerk beteko duen galdezka; gero aspertuta, zertaz idatziko duan erabakitze munduari so egiten diodan bitartean. Ardura handia da, horrenbeste dira gaiak, horrenbeste esan beharrekoak. Tira, denbora soberan dut eta enkargu-egunetik entrega-egunera dagoen tarte luzeak gaurkotasunaren kontra joka ez dezan, prokrastinatzan jarraitu dut. Orrialdea, erabat gogaituta, zurbiltzen hasi da.

Betiko gai unibertsalez eta atenez idaztea denborari iseka egiteko modua izan liteke. Eta epea bete baino lehen egongo litzateke folioa pozik. Baina ez! Hobe hori eguneko gertaera bati lotzen bazaio. Eta egunen joan-etorriak ekarri du gairik. Melillako hesien ezaugarri teknikoak, Fagorren itxierarenak, Interneteko espioitza, Segurtasunaren lege berria, Mandelaren heriotza eta hurrengo egunetako hitz zurien uholdea. Sortu da, bai, albisterik. Hala ere, agian, apur bat gehiago itxaroten badut, sortuko da azken unekoagoa den gairik.

Gainera, ARGIAK ez dit inolako argibiderik eta jarraibiderik ematen. Nahi dudana eta nahi dudana.

Azken-azken unekoaren bila Twitterrean jo dut. Amildegian behera eta behera. Nola erabaki dena posible denean? Nola bereiztu oihan horretan zein den nire jakin-mina aseko duen txioa?

Eta erabateko askatasun honek kikildu, elbarritu, egiten nau. Errazagoa zen eskolan udaberriari buruzko idazlana egitea agintzen zigutenean. Edo beranduago, “aurkezpena-korapilota-amaiera” zituen ipuina. Edo “sarrera-hipotesiak-metodologia-emaizak-ondorioak” zituen tesia. Lerro hauek idazteko inolako agindurik ez jasotzeak aukera guztiak uzten ditu zabalik. Folio zuriaren amildegia.

Azken-azken unekoaren bila Twitterrean jo dut. Amildegian behera eta behera. Nola erabaki dena posible denean? Nola bereiztu oihan horretan zein den nire jakin-mina aseko duen txioa? Maizen aipatzen den gaia? Gehien bertxiotzen dena? Entropiaren teoriak kontrakoa dio: gutxien agertzen dena da informazio gehien ematen duena. Eta entropiari buruz idazteko erabakia hartzekotan nengoela, gai-jartzaileak hartu du hitza: “Katalunia estatu bat izatea nahi duzu? Katalunia estatu independente izatea nahi duzu?”. Erroldan ez zegoen arren, lehen erantzuna Europako Kontseiluko presidentea den Herman van Rompuyk eman du. Agerraldi berean Espainiako Gobernuak argi utzi du galderak ez dituela edozeinek egiten, berak izendatutako kazetariak baizik.

Prokrastinazioaren aurka, zirt edo zart. ■



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

Euskal Erdia

GERO ETA HURBILAGO dugu euskaldunon kontakizun adostua. Hala berretsi didate unibertsitatean ari diren lehen mailako ikasleek. Izan ere, ikasgelan gertatzen denaren inguruko ikuspegi bertsua dutela adierazi dute, eta jakina denez, ikasgela beti da jendartean dagoenaren ispilu, Haur Hezkuntzatik hasi eta unibertsitatean buka.

Diferentziatik mintzo dira geroako irakasle izanen diren ikasleok, elkarren arteko ezberdintasun kontzientetik. Guztiek aukeratu dute irakasle ikasketak euskaraz egitea, nahiz eta gero taldearen barnean bi talde suertatu, euren artean harremanak izateko

hizkuntza dela eta: batzuek euskaraz zirikatzen dute elkar; bestetuek, berriz, gaztelan. Banioen arestian: ikasgela beti da gizartearen isla. EHU ez da salbuespena, ez eta hezitzaile izateko titulazioak ere.

Batzuek eta bestetuek kontatutakoaren arabera, apenas duten erlaziorik. Urtarrila hemen da eta beste blokeko (sic) jendearen izenak arrotzak zaizkie oraindik. Izenak eta, areago, izanak. Apenas dagoen zubirik elkarbizitzan.

Euskal Erdia osatzen dugula adostu dugu denon artean. Aho batez, kasik. ■





Angel Erro

♦ IDAZLEA

Gure iraganeko gu

LIBURU HANDI baten ostean, maitasun handi baten ostean bezala, hutsune bete ezina gelditzen da, lehenagotik aurreikusten duzuna, beldurra eragiten dizuna, hurbiltzen ikusten duzuna eta, hala ere, bila abiatzea beste irtenbiderik aurkitzen ez duzuna.

Ni biziki engantxatuta egon naiz Miguel Sánchez-Ostizen *El Escarmiento*arekin. Gustatu bai, baina ez nuen uste horrelako zirrara eragingo zidanik. Hala bertan kontatutakoagatik nola estiloagatik. Azken hau beti aitortu behar zaio Sánchez-Ostizi; gaztelaniaz hobekien idazten duen egile nafar, basko edo are espainiarretakoa da: hiztegiaren zehaztasuna, adjetibazio harrigarria, irudi poetikoak hitzik zatarrenekin, ahozko kulturako perlekin nahasteko gaitasun dotorea...

Bestalde, liburuan jasotzen den aspaldiko sumindurarekin hain erraz konektatu izanak harritu nau, neurri batean. Gerra zibila inoiz ez dut “nire” gerratzat hartu, gertatutakoaren inguruan iritzi sendoa banuen ere. Baina, espero ez bezala, gaurko (nire) Nafarroa den bezalako atzemateko jatorriara eraman nau eta barrutik ulertu ahal izan dut. Bihotza estuturik irakurri dut bertan agertzen zen pertsona bakoitzaren izen-abizenak, nire familiako, nire inguruko norbaitenak ikustearen beldur.

Iragan aspergarrikotzat ditut nik arbasoak, baina jende arruntaren ikaragarritasuna ere ez da alde batera uztekoa. Aitona 30 urte zituen gerra hasi zenean (bizitza osoan nekazaria gezurrik esan ez badidate, etenik ez badute isildu), eta hamar bat urte pasa ziren amonarekin ezkondu zen arte. Zer ibili zen ordura arte? Zenbat bizitza kabitzen dira berrogei urtetan? Amona hamabi urte gazteagoa zen, Kasedakoa, eta, hil hurren, apenas hitz egiten zuenean, behin, euskarazko abesti bat, eskolan mon-

jek irakatsia, kantatu zidan. Erdaldun hutsa zen eta hor ari zen, berak jakin gabe, Sabino Arana Goiriren izena goraipatzen euskaraz. Gauzak isildu dizkigute eta, okerrago, ez ditugu jakin nahi izan.


El Escarmiento ez da liburu erraz bat gero zerekin ordezkatu bilatzeko, gero zer irakurri erabakitzeke. Baina patuak geure aurrean osatzen duen sintaxi gehienetan misteriotsuak hartaratua, esku artera iritsi zitzaidan hurrengo liburua Sánchez-Ostizek berean ez egiteko espresuki aholkatzen duen ariketa batera ematen da buru-belarri, beste gudu batekin, hori bai: “No, no fantasees sobre dónde habrías estado, estás aquí, en el presente, asistiendo al relato del arroyo y del crimen, de la furia y el odio cainita”.

La Central liburu-dendako aukera zabalaren artean erabaki ezinik, inon topatzen ez dudana Pierre Bayard psikoanalista eta literatura aztertzailearen

lanik ba ote zen bilatu nuen. Bingo. Bere azkena bazuten, aurtien plazartutakoa: “*Aurais-je été résistant ou bourreau?*”. Izenburuak ia dena adierazten du. Atal bakoitzean erreferentzia literario bat lagun, bere iraganeko ni hipotetikoak zer erabaki hartuko lituzkeen, norberak zer bidegurutze etikoak “sortu” behar dituen gelditasunetik ekintzara igarotzeko barne indarra bilatzeko. Aitortu behar dut erronka zaila zela Bayardena eta ez nauela asebate.

Bazkalondo batean hizpidera ateratzeko behintzat balio izan dit eta gure “gerrara” itzultzean, ea zer bandotan egingo nuen borroka (edo, bestean bada, egingo nuen salaketa etikoak), gure jaioteguna hamar, hoge

urte lehenagokoa izan balitz, baina armak isildu diren honetan hobe honetaz zipitzik ez esatea. ■



Antton Olariaga



ENRIQUE VILLARREAL EL DROGAS

«Nire disko pirata saltzen ikusten dudanean, ‘ongi goaz, top mantan gaude’ esaten diot neure buruari»

Iruñea hiri txikia da, eta ez da harritzekoa ezagunak topatzea. Lucio Urtubia anarkistaren hitzaldi bat dela, edo bere amari besotik helduta paseoan dabilela, hortxe azaldu daiteke, esaterako, Barricadako abeslari ohia. Talde berria osatu du, eta karrikan dute lehenengo lana, album hirukoitza: *Demasiado tonto en la corteza*.

| KOLDO AZKUNE ETXABARRI |

Sanduzelain jo zenuten. Zer moduzko kontzertua?

Gozatu ederra hartu genuen. Klean jotzea gurekin bat dator. Hau da gustuko duguna. Sanduzelai auzoko etxe horiek 15 urte zermatzaten hutsik. Nafarroako Gobernuarenak dira, eta oraindik gehiago baditu. Argi dago, Barricadaren kantuak esaten zuen bezala, inork ez dizkigula giltzak eskura emanen.

Egoera nola dagoen ikusita, ekintza zuzena da behar duguna, eta Sanduzelaikoa horren isla da. Etxebizitza horiek berreskuratzen hasteko ordua iritsi da, esku-hutsik dagoen jendeari eman ahal izateko.

Talde berriak zure ezizena darama. Alabaina, azken diskoaren atzean lan kolektiboa dagoela adierazi duzu. Nola laburbilduko zenuke taldeko beste hiru partaideen egitekoa?

Guztiz oinarritzkoak dira. Oinarritzkoak dira, soinuaz ari bagara, beste talde batekin emaitza oso bestelakoa izanen litzatekeelako. Oinarritzkoak dira, halaber, taldearen barneko funtzionamenduaz ari bagara. Konposatzera-koan, entseguetara kanta bat eramaten dut, ohi bezala, gitarra akustikoarekin eta lau akorderekin eginga. Hortik aurrera kantuen erabateko suntsiketa dator. Denek esku hartzen dute, eta laurok kantaren alde lan egiten dugu, konponketak direla, girotze musikala dela. Elkarki zukua ateratzen diogu, kanta gorpuztu dadin. Eta prozesu horretan denak beharrezkoak gara. Badirudi nik dena egiten dudala, eta hori ez da horrela, inondik inora. Horrez gain, taldean Brigi Duke izeneko per-

tsonaia dugu, Koma taldeko bateria-jotzailea, eta ‘El Drogas’ izan beharrean, taldearen deitura ‘Brigi Duke’ izan zitekeen, lasai asko.

Disko hirukoitza atera duzue, 24 kanta. Egiak, ez da egungo rock taldeen artean ohikoa. Nondik ateratzen zaizu sormena?

Maite duzun jendearekin egonda. Lantalde bateko nukleoaren partaide sentitzen zarenean, erraz samarra da. Gero, hori bai, ordu asko eman behar elkarrekin, entseguetan. Maite dugun mundu baten barruan bizi gara, kantak konposatzen, furgoneta hartu eta han hemenka jotzen hasteko errepertorio bat osatzen... Horrek guztiak gauzak gelditu gabe egitera bultzatzen gaitu. Niri idaztea gustatzen zait, eta sormen prozesua oso naturalizat hartzen dut.

Egia da musikan formula bat modan jartzen bada, denek bide hori jarraitzen dugula. Promozio berdinak egiten ditugu, komunikabide beretara jotzen dugu, aldizkarietan antzeko iragarkiak paratzen ditugu... Aspertuta nago, eta gauzak beste era batean planteatzen ditut. Arduragabetasun puntu bat izan behar da horretarako, eta nik hori badut. Arduragabetasun puntu hori beste hiru lagunekin partekatzea, deskubrimendu itzela izan da niretzat.

Banda berri honekin libreago sentitzen al zara?

Bai, egiten dugun lanaren neurria izan behar duena delako. Kooperatiban egiten dugu lan. Nik ez ditut portzentajeak edo zenbakiak

**“Nire arduragabetasun
puntuak beste hiru
lagunekin partekatzea,
deskubrimendu itzela
izan da niretzat”**



kontuan hartzen, eta dugun guztia jartzen dugu kantu bat garatu ahal izateko. Ia-ia ahaztua neukan funtzionatzeko modu hori.

54 urte dituzu, eta horietako asko eszenatokiaren gainean eman dituzu. Eszenatokiaren gainean jubilatzeke asmoa duzu?

Ez dakit nola amaituko dudan. Nire ofizioa da, maite dut eta zaintzen dut. Lanbidea nire fisikoaren egoeraren arabera egokitzen dut. Bada denbora nire ofizioan jarraitu ahal izateko bizio guztiak alboratu nituela. Orain urte eta erdi erretzeari utzi nion. Erretzen jarraitu edo abesteari utzi, hori da planteatu zidaten erabakia. Alemaniar baten abizena zuen eritasun bat diagnostikatu zidaten, Reinkeraren edema eta aukera oso argi izan nuen. Ezin dut bi egunez jarraian kantatu. Eztarriak atsedean egun batzuk behar ditu. Indarra dudan bitartean honetan jardungo dut, oso ongi pasatzen dudalako eta niretzat magikoa delako.

El Drogasekin (eskuinetik hasita lehena) Iruñeko Sanduzelai auzoan elkartu ginen, Hipotekak Kaltetutakoak Plataformak okupatu dituen etxeen inguruan.

Aldatu al da publikoa azken urteetan?

Ezin da orokortu. Egia da azken urteetan jaialdi handien aldeko apustua zabaldu dela, talde asko eta ordubete eskaseko emanaldiak. Ez ditut gustuko, entzule bezala ez baituzu ezer barneratzen. Nahiago ditut areto tikietan ematen diren kontzertuak, non zure izerdia jendearen gainean erortzen den, eta aldeantzez. Bi orduz, bi ordu eta erdiz, edota, are gehiago, hiru orduz egoten zara kontzertuan, eta aretotik zerbait interesgarria bizi izan duzula pentsatuz ateratzen zara. Tamalez, geroz eta jende gutxiago biltzen da horrelakoetan. Taldeak zure etxepean jotzen badu ere, jendea ez da bertaratzen. Egia da, bestalde, nik ez dudala kexarako motiborik. Kexatuko banintz jipoia merezik nuke.

Kultura merkatuko produktu bihurtu dela salatzen dute askok. Berdin errespetatzen al da sortzaileen lana?

Ez, hor dugu interneteko deskargen kontua.



Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



Norbaitek jatekoa lortzeko arazoak baditu, eta musika gustatzen baldin bazaio, nik ezin diot ezer esan nire diskoa internetetik jaisteagatik. Baina musikagilea bere konposaketetatik bizi da, eta sistemaz ezer ez ordaintzea ez dut ongi ikusten. Adostasun batera iritsi beharko ginatke. Aldi berean, galdetu beharko genuke CDak zergatik diren hain garestiak. Edota kontzertuko sarrera erosteko zergatik ordaindu behar zaion komisioa Tic-Tac Ticketi, edo iraultza zerga ordaindu behar zaion. Edota zergatik den SGAE lapurren habia... Ongi legoke honen guztiaren azterketa patxadatsua egitea.

Karrikan zure disko pirata saltzen ikusten baldin baduzu, zer sentipen eragiten dizu?

Ene buruari zera esaten diot: "Jode, ongi doa kontua, Top Mantan gaudel!". Hori da salmenten benetako termometroa. Nik pertsona horri ez nioke salaketarik paratuko, ez nuke CDak jasotzera behartuko. Pertsona hori mafia batek esplotatzen baldin badu, justiziak esku hartu beharko luke esplotatzailea nor den ikusteko. Saltzaileak nahikoa izan du bere sorterrria eta familia utzi beharrekin. Ez nuke Bustamantek bezala jokatu, kameraren aurrean bere disko pirata saltzeagatik beltz bati errieta bota zionean. Bustamantek eta bere kamerek saltzaile horren atzean zer dagoen aztertu beharko lukete, nortzuk diren mafiaren buruak, eta nolakoa den saltzaile horren sorterrria, bere etxea, bere familia.

Lehenengo diskoa, *Alzheimer*, bideoklipaz lagunduta etorri zen: *Cordones de mimbre*. Eritasunaren lekuko zuzena izatea zer da zuretzat?

Amari gaixotasuna diagnostikatu ziotenean, danbateko ederra jaso nuen. Inguruko jen-

"Ez dugu enpatia hitzaren esanahia konprenitzen.

Etxe-kaleratzeak edo irakaskuntza edo osasungintzaren pribatizazioa salatzen duten elkarteetan nahastu beharko ginatke".

dearekin hitz egiten hasi, eta arazoa uste buna bano hedatuagoa zegoela ikusi nuen. Gaixotasuna arrazionalizatzen hasi nintzen, eta hainbeste maite nuen senideak nire laguntza behar zuela barneratu nuen: kalea gurutzatu ahal izateko besoa eskaini behar diozu, ipurdia garbitzen ikasi behar duzu, eta hori guztia. Prozesu gogorra da, gaixotasuna oso ankerra baita. Senide horrek okerrera nola egiten duen ikusten duzu, baina neurri berean zure senidearekin zenuen harremana aldatuz doa, burua ferekatzen diozunean, gorputza garbitzen diozunean... Nik ez nuen halakorik sekula imajinatu, eta bizitza-ikasketa bat izan da niretzat.

Nire hitzetan inguruan ikusten dudana islatzen dut, eta Alzheimerrekin paperean esaldiak idazten hasi nintzenean, botaka ariko banintz

bezala egin nuen. Gero esaldi haiek ordenatu eta disko bat egiteko aski material nuela ikusi nuen.

Bigarren diskoak ere egunerokoarekin du zerkusia. *Matxinada*, iraultza bat ernatzen ari da eta isilarazten gaituzte. Jendea orokorrean, eta artistak bereziki, arras anestesiatuta daudela iruditzen al zaizu?

Hala da, ez dugu enpatia hitzaren esanahia konprenitzen. Etxe-kaleratzeak edo irakaskuntza edo osasungintzaren pribatizazioa salatzen duten elkarteetan nahastu beharko ginatke, besteak beste. Beldurrak aldatu beharko luke bandoa, Riot Propaganda taldeak esaten duen bezala. Kontrolatuago eta otzanago bihurtzeko sartu diguten indibidualismo hori alboratu beharko genuke, eta dugun indarraren jabe egin beharko ginatke.

Biloba izan berri duzu. Nola daramazu aitona izatea?

Zoragarria da. Familian bizitza eztanda bat izan da. Gurasoek haurra hazi beharko dute, eta guk, aitona-amonak garen neurrian, kapritxo guztiak emanen dizkiogu. Niretzat eta nire bikotekidearentzat oso pozgarria izan da. Amonak esaten duen bezalaxe, haurra ikusten ez dugun aldiro galdutako egun bat da. Udan asko disfrutatu dut. Bilobarekin Arga ibaira gerturatzen ginen, Errotxapeara, eta nik harriak erakusten nizkion, uretara nola bota behar diren ikas zezan. Hurrengo urratsa harria uretan dantzatzen irakastea izanen da. Tontakeria dirudi, baina niretzat oso garrantzitsua da txipi-txapa egiten irakastea. ■



Enpleguaren alde

25 milioi euro inbertitu ditugu
lanpostuak sortzeko

Lan baldintza duinen alde

Adinekoentzako zerbitzuetako
4.800 langileren baldintzak
hobetzen ari gara

Garraio publikoaren alde

400.000 gipuzkoarrok
erabiltzen dugu Mugi txartela

Kudeaketa zorrotzaren alde

400 milioi euro aurreztu ditugu
erraustegirik gabe

**Hau da denon Gipuzkoa
Herritarron Gipuzkoa**



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Gipuzkoa
BERRIA

Nazioaren zentzua

Adinak nahi dena esan eta egiteko ematen duen askatasun horretaz baliatzen zen: “Laurogei urte eta pikoko prostatikoa zarenean egiten duzu nahi duzuna, e? Daukazu askatasun bat...”. Memoriak idazten ari zen aitzakian joan ginen elkarrizketa egitera, 2011ko ekainaren 28an.

| ELIXABETE GARMENDIA |

OROITZAPENEN APUNTEAK papereratzten omen zituen euskaraz, gaztelaniaz nahiz frantsesez, gertaerak agintzen zion erara. Damu zen, alde batera, behar adina denbora hartzen ez zuelako horretarako, baina ez zegoen prest afizio nagusia, gudariñoak egitearena, bertan behera uzteko. Xixipo txakurra aurretik zaunka zihoala eraman gintuen etxeko zoko batean zeukan tailerrera: “hau da nere zuloa”; berniz eta pintura usaina zeriola, soldadutxoek piezak kaxetan, pintura pote eta isipuak mahai gainean, modelotarako erabiltzen zituen uniformeek argazkiak erakusgai. Eta zapla bota zuen: “Ni ez naiz historiara pasatuko politikari gisa, baina bai soldadutxoek egile modura”.

Idatzi, ez dakigu zenbateraino idatzi zituen memoriak. Oroimenak, ez zion kale egiten. Historian zale eta aditua, bere bizialdiaren kontakizuna klase magistral ilustratu eta dibertigarria bilakatzen zuen, letra txikia eta handia tartekatuz. Historiaren trenera igotako gizona zen, bizitzea suertatu zitzaionagatik eta bizitakoa kokatzen eta iragazten jakiteagatik.

“Nik daukat nazioaren zentzua, izango naiz maniatiko bat, bale, baina zentzu hori

Elvira Zipitria, Visitacion Ziauriz, Carmen Sansinenea, Ramon Labaien eta Pilar Sansinenea Ziburun, 1937an. Jesus Elosegik hartutako argazkia.

daukat”. Hori zuen pentsamendu politikoa-ren ardatza, EAJren lerro ofizialetik harata-goko bideetan barrena eramaten zuena. Nazioaren zentzua gerra garaian jaso omen zuen, Iparraldean aterpetuta bizi zirenean. “Bestaldean ez zen aipatzen alderdia, aipatzen zen lehendakaria, Jose Antonio Agirre, eta bere gobernua”. Giro horretan erne zitzaion, betirako, nazioaren zentzua.

Ordurako sumatua zuen beste ondare bat: euskal kulturarena. Etxeko salan topatzen zituen Pizkundera zurkaiztu zutenak: Lizardi eta Aitzol, Lauaxeta eta Orixe, Ixaka Lopez Mendizabal... Tolosa Pizkunderaren bihotza zen eta Antonio Maria Labaien eta Carmen Sansinenearena eragile haien sartu-etxea.

Ikonoklasta

Jesus Elozegi osabak –Pilartxo Sansinenearen senarrak– 1937ko urtarrilean, Ziburuko Zigarroa etxeko leihoan ateratako argazkian, ageri dira familia osoa –gurasoak, Martin anaia eta Ramon-, Juan Migel eta Pilartxo Sansinenea osaba-izebak, eta beste pertsonaia bat: Elbira Zipitria, andereño aitzindaria. Imanol Muruari Jakinerako emandako elkarrizketan Ramonek “Zipitriaren lehen biktimia pedagogikoa” izan zela kontatzen du, bere ironia grafiko horrekin. Don Jose Migel Barandiarani berriz –latineko irakaslea izan zuen Saran– kalifikatibo bat ezartzen zion: integrista. “Apaiz bastante integrista”. Autozentsuratik gutxi, mendeku puntu bihurri bat bai, Labaien mutikoari Iparraldeko egonaldia apur bat mikaztu zioten euskal munduko ikono horiek epaitzerakoan.

Historiak etxeko ataritik pasatzen segitzen zuen. 1940ko udan, gerra batetik ihesi zeterren mutikoak beste gerra bateko episodiora bizi izan zuen Donibane Lohizuneko plazan: alemanak sartu zirenekoa. “Zigarretten” eskatu zion soldadu haietako batek, eta han joan zen korrika tabako dendara eta baita enkargua egin ere. Ordainetan 20 libera jaso zituen, sekulako propina, Hitlerren jarraitza-





le harengandik: “Germanofilo bihurtu nintzen segituan”. Pasadizo hori “Esbastika bat Bidasoan” dokumentalean ere jasota dago. Labaienek kamera aurrean egindako azkenengoetako agerpen horretan, lehen eskuko testigantza eskaintzen du nazien Iparraldeko egonaldiaz, eta haien eta euskal jendearen artean egon ziren harremanez.

Sarako euskara ikasita eta eskola frantzesak eskaintzen zuen historia eta kulturarekiko jaineraz jantzita itzuli zen Labaien gaztea Iparraldetik 1944ean. Eta hemen nazional-katolizismoarekin topo egin zuen, Donostian, Jesuiten ikastetxean. Gero kimikako ikasketak egitera joan zen Madrilera, eta han Euskal Herriko historia lantzeko talde bat muntatu zuen ikasle euskaldunekin. “Bazen teoria bat: noiz hasi zen abertzaletasuna? Azkoitiko zalduntxoekin”. Teoria labaiendarra.

Aizu!

Horixe zuen makulu-hitza. Aizu!-rekin hasi eta edozer etor zitekeen segidan. Esaterako, Garaikoetxeak 1980an gerra osteko lehen Jaurlaritzara deitu eta Kulturako Sailburutza hartu zuenean “dena egiteko zegoela”, eta lehendakari haren ausardiaz eta autoritateaz baliaturik Euskal Irrati Telebista sortu zutela ia-ia klandestinoki. “Gobernu hartan zegoen entusiasmo handia, eta indar handia zeukan lehendakari bat; eta argi ikusten genuen gauza bat zela Espainiako legalitatea eta beste bat Euskal Herriaren legimititatea”.

1983an Donostiako alkatetza lortu zuen EAJtik. Erosoen aurkitu zen kargua, titulurik kuttunena. “Nik uste dut gure egitura politi-

Politikagintza ofizialetik kanpora, bakearen eta eskubideen aldeko ekimen ugaritan sartu zen: Egunkariaren itxieraren kontra, Milakabilakan, Independentistak sarean...

koaren bizkarrezurra alkatetzak izan direla”. Nerea Azurmendik 2004an, Rikardo Arregi sarien argitalpenerako egin zion elkarriketan adierazi zuen Labaienek, gerora ohartu zela, Donostiako burgesiaren alkate izan zela bera. Burges hitzari ez zion zirkinik egiten. “Ni Tolosako burges bat naiz eta nire ama Donostiako burges bat zen, eta bakoitza da dena. Ezin duzu fikziorik egin”. Maria Cristina hotela berritzeari ekin zion eta auzoetan kultur etxeak sortu zituen alkatetzan egon zen legegintzaldian.

1985eko Korrika Donostiatik igaro zeneko telebista irudietan, AEKko kamiseta jantzita ageri da alkatea kalez kale, semeetako bat eskutik hartuta; gero, Udaletxean, don Jose Migel Barandiaranen ondoan, “Gora Euskadi!” ozen eta hunkituarekin amaitu zuen harrera ekitaldia. Urte hartan 800.000 pezetako laguntza jaso zuen Korrikak Donostiako Udaletik.

Andoaingo SAPA arma lantegiko aholkulari gisa lan egin zuen erakundeetako ibilbidea utzi eta erretiro berantiarra hartu arte. Aholkulariaren zereginak: “lizentziak lortu, zee behar dauden aztertu, militarrekin harremanak izan... Ni ondo moldatzen naiz militarrekin”.

Eta aldi berean, politikagintza ofizialetik kanpora, bakearen eta eskubideen aldeko ekimen ugaritan sartu zen: *Egunkariaren* itxieraren kontra, Milakabilakan, Independentistak sarean... “Nik esaten diet hori opzio bat dela, aztertu egin behar dela”. 2011ko Aberri Egunean, han zebilen Baigorriin, txanoa jantzita, zaparradari aurre egiten. Nazioaren zentzuaren aterkipean beti ere. ■





Helduen Literatura

Txartel bat (des)herrira

Garazi Goia

Elkar, 2013

Bihotzak dio... “zoaz Euskal Herrira”?

TXARTEL BAT (DES)HERRIRA liburuarekin Garazi Goiak begirada jarri du Gernikako bonbardaketa eta gero Euskal Herritik Ingalaterrara joan ziren haurren eta horren harira erbesteaz eta herriaz hitz egiteko aukera aprobeztatu du. Baina gai honi begiratzean pertenezkoa sentimenduz harago doa hurrengoa planteatuz: zer gertatzen da herria eta norberaren arteko lotura apurtzen denean? Zer egin identitatea kolokan jartzen duten memoria mingarriekin? Nor gara iraganak gure oraina eta geroa goitik behera baldintzatzen digunean? Nonbait partaide, herritar izatearen sentimendurekin zalantzak dituzten eta deserrotuta noraezean dabilen protagonistak irudikatzen dizkigu Goiak. Bi ibilbide gurutzatzen dira Londresen, biak Euskal Herritik etorriak eta biak bueltatzeko ideia era gatazkatsuan bizi dutela. Askatasunaren bilaketa eta ihesa, abandonuaren mina eta bakardadearen pisua nahasten zaizkie Ibairi eta Peruri. Lortuko ote dute Euskal Herrira bueltatzea eta bertan goxo geratzea?

Bi bizitza horiek gurutzatzen dira liburuaren kapituluetan barna, narrazioa elkarriketekin tartekatzen da, eta hauek gutun, amets eta poemekin ere harilkatzen ditu egileak. Letra etzana eta lodia ere agertzen zaizkigu batzuetan eta testu mota desberdinekin batera intertestualitatea: beste batzuren artean Milan Kunderaren *Identitatea* edo Albert Camusen *Atzerritarra* lanek gaia azpimarratzen eta

rriko dira aipu zuzenekin, Sylvia Plathen bizitzaren amaierari ere leku egingo dio etorkizunerako planak aipatzean edota Jeannete Wintersonen autobiografiaren izenburua gogora ekarriko digu hurrengo gogoetarekin: “Zergatik izan zoriontsu normal egon zaitezkeenean?”.

Bi protagonistek partekatzen dituzte paperezko hegazkinen irudia, liburuan behin eta berriz errepikatzen dena. Odoleztatuta agertuko zaizkio bati ametsetan eta besteak oharrak idatziko ditu bertan esan nahi dituenak bere hartzailearengana helarazteko. Honekin batera koadernoak daude, biek idazten baitituzte euren memoriak koadernoetan. Batek hurrengoa dio: “Terapia bat da. Nire bizitzan gelditzen zaidan azken dilemetako bat hausteko”, besteak “galdetu ezin diren gauzen zerrendak” egiten dituen bitartean.

Gai eta egitura interesgarriak dituen lana izanik faltan botatzen dut edizio lan gehiago, hizkuntzari begira akatsak egotea ez litzatekeelako gertatu behar (nahiz eta badakigun gaur egungo literatur lanetan gero eta gehiago topatzen dugun zerbait dela), eta prosa landuagoa izaten lagundu ahal izango liokeelako literatur testu hau borobilduz eta osatuz. ■

**Amaia
Alvarez Uria**





Bultzaden balada

Xutik

Mukaki Produksioak, 2013

Zutik, makurtu gabe

XUTIK TALDEA berriz ere zutik da. *Bultzaden balada* bigarren diskoa jadanik kalean dute. Baina, egia esan, taldea zutik mantendu da beti, taldekideak elkarrekin jotzen hasi zirenetik ez baitira sekula makurtu, ezta eseri eta etzan ere.

Jaia eta aldarria, martxa eta borroka dira Xutik taldearen ardatz nagusiak. Kantu alaiak eta dantzagarriak jotzen dituzte, hainbat musika estilo nahastuz (ska, reggae, rap, pop, rock, latinoa), eta hitzetan zuzen mintzo dira, ahoan bilorik gabe. Euskal Herria aske izateko desioa eta itxaropena azaltzen dute, eta hori lortzeko borrokatu egin behar dela argi dute.

Hona hemen kantuetan esaten dituzten esaldi batzuk: “Irriarekin ehizatuko dugu mamu zaharra” (*Sudur gorrien iraultza*), “Behin lurrean izanez gero, guri datorkigu xutitzea berriro” (*Erortzen*), “Ahaztu zure lotsak, ez gorde barneko urratsak” (*Dantza dantza*), “Euskararen geroa guk dugu mihian, erdaraz mintzatzean bihar datza hobian” (*Geroa mibian*), “Eskatzen duguna: demokrazia! Nahi duguna: presoak etxera! Lortuko duguna: independentzia!” (*Lortuko duguna*), “Gure lema argi dago: bizi gireno ez gira geldituko” (*Xutik*), “Erlojua aurrera doa, ez dugu emanen atzera pau-soa” (*Stockholm sindromerik ez*), “Betiko betiko! Libre senditzeko esperantzaren aldarri. Betiko betiko! Izanen ixildutako oihuen euskarri” (*Memoriaren pareta*), “Ez gorde negar malkoak, izanen dira zorionezkoak, burua ez makurtu” (*Flekz*), “Mihi gainean daukagu askatasunaren giltza. Herrira! Herrira! Kalean izanen dira!” (*Herrira*).

Kolore ugari dituen diskoa osatu dute, hamaika musika tresna erabiliz, eta doinu indartsua gauzatu dute. Grabazioa 2012ko irailean egin zuten Paxkal Etxepareren estudioan, Bardozen (Lapurdi). Masterizazioa, berriz, Pierre Chalbosek egin zuen Pariseko La Source Mastering estudioan.

Diskoko kanta bakoitzak bere izaera badu ere, kanta guztiek diskoari osotasuna ematen diote. “Abesti bakoitzak gai bat lantzen badu ere, guztiak balada baten osagai dira”, taldekideen hitzetan.

Herrira abestia Herrira plataformak Baionan deitu zuen presoan aldeko manifestaziorako sortu zuten. Presoena bereziki gertuko gaia dute: «Gaur egungo egoeran, eta bereziki egunero iristen zaizkigun albisteak kontuan hartuz, presoan aldeko aldarria sekula baino garrantzitsuagoa da».

Diskoko abestiak euskaraz idatziak dira, eta zati batzuk frantsesez eta katalanez. Euskal Herri-kanpoko errealitatea ere kontuan hartzea baita beren asmoa, euskal kultura ez ezik mundu zabal-lean milaka eta milaka kultura badirela islatzea. Horretarako, ezinbestekotzat jo dute hainbat kolaboratzailearen lana. Haien artean, Carles Belda musikari katalanak *Xutik* kantan abestu eta trikitixa jotzen du, eta Saïdou, MAP eta ZEN taldeetako rap kantaria, *Lortuko duguna* abestian aritu da.

Taldekideek beste hainbat musikariren eta artista-ren laguntza ere izan zuten grabazio saioetan: Lekittoko Banda; Uritze Laka; Itziarren Semeak taldeko Ibon eta Manex Altuna; Pirritx, Porrotx eta Marimotots; Sébastien Zamora; eta Jean-Ro Unhassobiscay.

Maitena Beheran (ahotsa), Peio Iziaga (ahotsa), Ortzi Hegoas (bateria eta ahotsa), Amaïur Koxkarat (baxua eta ahotsa), Sébastien Sedes (gitarra), Pier Balacey (gitarra eta ahotsa), Patxi Bidart (saxoa, gaita eta ahotsa) eta Mizel Zamora (tronpeta eta eskusoinua) dira Xutik taldeko partaideak. Patxi Bidart baxenafarra da, eta gainerakoak lapurtarrak.

Xutik taldea 2008an sortu zuten. Aurretik, Zpeiz Mukaki elektrotzaranga eta dantza taldeko kideak ziren, eta gerora Xutik taldea osatu zuten. Xutik taldeak bi disko dauzka kalean: *Mukaki Zpirit* (Baga-Biga, 2011) eta *Bultzaden balada*. Halaber, aurtan ospatu den 30. Herri Urrats jaiaren abestia Xutik taldeak berak sortu du.

Urteotan beren musikak bilakaera bat izan du, baina taldearen filosofiak eta aniztasunaren aldeko apustuak bere horretan iraun dute.

Taldeak zutik jarraitzen du, makurtu gabe. ■

Joxi Ubeda



HUAYNA POTOSI (BOLIVIA)

“Muino gaztea”, 6.000 metrotik gorako gailurra

Sarriegi ametsak desegiten zitzaizkigun. Baina oraingoan, adorez bete eta etxe inguruko mendi magaletan gora eraikitako ilusioak, benetan irudikatu genituenak bezain ederrak ziren jakiteko aukera emango genion geure buruari. Andeak ezagutzea zen gure desira, argazki, irudi eta literaturatik harago, bertatik bertara geure begiz ikustea mendi horien handitasuna.

| EGOITZ ARRUTI URIA |

Argazkiak: Egoitz Arruti Uria / Jon Busto Itxaso





Lakua Condoriri inguruan. Urrunean ikus daitekeen gailurra Huayna Potosirena da.

ALTUERA BERA zailtasun itzela denez, teknikoki ongi moldatzeko moduko mendia aukeratu nahi izan genuen 6.000 metrotik gorako aurreneko esperientzian. Lehenbiziko lana altuerara egokitzea genuen beraz, eta horretarako zeharkaldi batzuk egitea gomendatu ziguten goi mendietan esperientzia duten lagunek. Zeharkaldiak ez ziren egokitze izango soilik, aldi berean Boliviako bazterrak, kultura eta pertsonak ezagutzeko gogoia ere bagenuen.

Aurreneko zeharkaldia Apolobanbatik egin genuen, Kallawayan izeneko sasi-medikuen lurraldetik. Hego Amerikan ibiliak dira urte askoan, beren sortginkeriez jendea sendatzen, boterea herentziaz jasotzen omen dute. Turista gutxi heltzen da hara, garraioak urri eta nahiko desatseginak baitira. Hamar ordu inguruko bidaia izan daiteke bertara La Pazetik iritsi artekoa, jende gehiegiz beteriko autobus zaharretan, bide estu eta amildegi bazterretatik gertuegi

pasatuz, errekek zeharkatuz eta, tarteka, militarren kontrola igaroz.

Condoriri

Bertakoen adeitasunak bultzatuta bigarren zeharkaldi bat egitea otu zitzaigun. Jendeak behin eta berriz hitz egiten zigun Condoririko inguruz, eta behin han ginela ez genuen

Iritsi zen eguna, gai izango ginen jakitekoa, oztopoak gainditzekoa, harri pilo haren gainera igotzekoa. Numero hutsak baino gehiago ziren, ez zen altuera jakin bat gainditzekoa bakarrik

ezagutzeko aukera galdu nahi izan. Oinarrizko kanpamendu batean egin genituen egun batzuk, laku baten ondoan. Inguru horretan tontor asko dago, eta jende ugari gerturatzen da aklimatazio lana egitera edota gailur bateranzko azken txangoa abiatzera.

Ingurune zoragarria da edozertarako ere, mendi handien itzalean, llama taldeak alde batetik bestera belar bila eta bertako gidarien astoak honezkero buruz dakiten bidean gora eta behera egunero. Han, aurreneko aldiz, begiak gure helburu nagusian jarri genituen: Huayna Potosi. Aymarazkoa da izena, “muino gaztea” esan nahi du. 6.088 metroko garaieratik, tontorrera igotzeko esaten ari zitzaigun.

Huayna Potosirantz

Iritsi zen eguna, gai izango ote ginen jakitekoa, oztopoak gainditzekoa, harri pilo haren gainera igotzekoa. Beste askotan bezala, ez genekien azaltzen zergatik dugun gogoia han gora igotzeko, arrisku horiek hartzeko. Numero hutsak baino gehiago ziren, ez zen altuera jakin bat gainditzekoa bakarrik. Aurrean genuen mendi hura, zentzu askotan, inoiz inon igotzen saiatu ginen handiena zen, eta horrek kezkatzen gintuen eta aldi berean tentatzen ere bai.



Campo Baseko aterpea, 5.000 metrotik gorako garaieran. Hemen hasi ginen ikusten altueraren eragina noraino iritsi zitekeen.

Gidari bat, sukaldari bat eta gu biok geunden han, beheko aterpean, motxilak prestaturik goraka abiatzeko nagiz. Espero gabe, behin eta berriz esaten ziguten arren neguan ez zuela euririk edo elurrik egiten, mara-mara ari zen. Eguraldiak aldatzeko itxurarik ez zuenez, pauso motelez ekin genion aurreneko maldak igotzeari, txapelak zurituri eta nahikoa bustirik. Mendira igotzeko baimena ematen zuten lekura iritsi ginen. Emakume bat zegoen estalpe batean, garai batean txabola izaniko harri pila besterik ez. Koaderno batean gure izenak idatzi genituen, eta hamar boliviano ordaindu ere bai.

Altueraren ordaina

Aurreneko egunean Campo Base izeneko aterpera iritsi ginen. Jende zalepo zegoen: italiarrak, suitzarrak,

kanadarrak, argentinarrek... Altueraren eragina noraino iritsi zitekeen han hasi ginen ikusten. 5.100 metro inguruko garaieran geunden, eta batzuk oso gaizki pasatzen ari ziren: goserik ez zuten, bai ordea buruko mina, denbora guztia etzanda ematen zuten. Halako batean Benegas anaiak agertu ziren, mendiko gidari ezaguna, Himalayan lorpen handiak

5.100 metroko garaieran geunden, eta batzuk oso gaizki pasatzen ari ziren: goserik ez, buruko mina...

lortuak. Bezero bat zekarten hiru lagunak artean oraturik, edema bat sortu zitzaion eta akiturik zegoen. Ondoez jo zuen gizona tontorretik nahikoa hurbil, eta gainera ekaitzak harrapatu zituen, tximistak oso

gertu ikusi zituztela kontatu ziguten, eta beldur handia pasa zutela. Haiekin Nepaleko gidari bat ere bazen; zioenez, tximistak inoiz hain gertu ikusi gabea zegoen, beldur itzela pasatu omen zuten.

Ekaitzak ez zuen gelditzeko asmorik, afaldu eta nahiko etsita sartu ginen gure zakuetan, bat-batean gure gidaria igo zen lo egin nahian geunden tokira. Han geunden 30 bat pertsona begiak ezin itxirik, urduritasunak jota, baina gidaren hitzek pixka bat lasaitu genituen, ekaitza pasatua zen eta jada ez zuen elurrik ari.

Goizeko ordu bata inguruan aurreneko mendizaleak hasi ziren beren zakuetatik atera eta mendirako trasteak atontzen. Gu berandua go ateratzekotan ginen, ongi ikusten genuen geure burua, eta egunsentirako heldu nahi genuen gailurrera. Bakarrik geratu ginen aterpean, denak gorantz atereak ziren altxatu ginenerako. Gosaldu eta arropak eta botak jantzi, eta arropa gehiago eta kranpoiak, pioletak eskuan, elkarri sokaz lotuak hirurok. Izugarritzko hotza egiten zuen, -15° -tan egongo zen termometroa halakorik egon balitz. Aurreneko pausotatik arnas hotsa besterik ez nuen entzuten, buruko linternaren argiak sokari jarraitzeko lain argitzen zuen, eta arnasak erritmoa markatzen zigun.

Berehala hasi ginen jendea aurretatzen; batzuk jada etsita zeuden, buelta hartzea erabakita. Ia gelditu gabe, pauso lasaiz, arnasak agintzen zuena eginez gindoazen aurrera. Bat-batean ohartu ginen gure aurretik ez zela ipurtargirik ikusten, atzetik bai, kate luze baten modura, atzera begiratzen genuenean argi txikiek lerro luze bat marrazten zuten gauaren ilunean. Bidea irekiz gindoazen.

Lasai, zentzuz, beldurrez

Zatirik zailenetan geratu, arnasari buelta eman, lasaitu eta zentzuz aurre egiten genien oztopoei.

Baita beldurrez ere, zergatik ez esan. Atzetik zetozenek guk baino errazago izango zuten bidea, gure lanari esker, baina ez zitzaigun axola, gure bidea egiten ari ginen, ez beste inorena. Ordu batzuk igarota nekea suma-



tzen hasi ginen, gero eta gehiago kostatzen zitzaigun aurrera egitea eta tarteka arnasari buelta ematen geratu behar izaten genuen. La Pazeko argiak ikusten genituen urrunean, inoiz baina baketsuagoa zirudien hiriak han goitik. Pixkanaka, eguzkiaren lehen izpiak lurrazalaren urrutetik ate joka bezala sumatzen ziren.

Kolore festa

Eguneko ordurik hotzenak eta politenak tontorretik pauso gutxira harrapatu gintuen, egunsentia, itzelezko edertasun horren aurrean geldirik geratu eta, gorriak, laranja,

beltzak, zuriak... kolore dantza itzela zen. Eguzkiak argitzen zuen heinean, ikusten genuena izugarria zen. Amazonas ingurua lainoz estalitako itsasoa zen. Bazirudien Titicaca lakuaren inguruko lursail gorriak ez zirela inoiz berdetuko, ura hain gertu izan arren. Andeetako leihua ireki zitzaigun, eta emozioek sentipen asko ekarri zizkiguten, pauso gutxira helmuga zegoen. Gailurrean ginen, pozak txoratzen, geure barnean sentitzen genuena ezin azaldu-rik. Malko bat isuri zitzaidan, eta izozturik geratu zen masailean.

Kostata, beherako bideari ekin

genion, gorakoan ikusi ez genituen pitzaduren artetik, uneaz gozatuz, irribarre lelo batekin aurpegia apainduz eta izugarritzko bizipoza-ekin. Sentimendu hori da, agian, tontorrek igotzera eramaten gaituena: bizitza bizitzeko gogoia. ■



Bisitatu
Ihesi.com,
aisialdirako
webgune parte-
hartzailea.

Eguberritako

haur parkea


Zatozte haurrekin jolastera

pin.ficoba.org

P

dohainik

Gurutzegrama



ROBERTO CACHO-CC BY

Sudokuak

Erraza

		2		3			1	
1	8						2	
	6	5	2	8		9	4	7
6					3			9
		9	4		2	6		
5			6					2
8	5	7		1	6	2	3	
	3						9	1
9			2		7			

Zaila

	5			3				
					5		7	3
		2	7	1			6	
7					2	6		
			1		6			
		8	3					9
	3			4	7	8		
5	2		9					
				2			4	

Ezker-eskuin:

1. Artilleria pieza, kanoiaren eta morteroaren artekoa. Pilota-joko mota.
2. **Argazkiko mendia.** Oinarrizko edari. 3. Gora joan. Hauts bihurtu. 4. Gasa duena. Zalantza partikula. 5. Izan ezik, salbu. Nekatu. Gau ona opa izateko esaten dena. 6. Gorantz zuzen. Itsas barraskilo mota, jateko ona. 7. Janaldi arin. Alokairu. 8. Aipamen. Onartzera behartu.

Goitik behera:

1. Bizkaian, erbinudea. 2. Arraunean egin. 3. Dohatsu, zorioneko. Emakumezko jantzi. 4. Sailburu (laburdura). Dei egin. 5. Kopuru handietan. 6. Musika tresna. Molibdenoaren sinboloa. 7. Bi gehi bi. Otoitz bukaeran. 8. Apaizek eraman ohi duten jantzi luzea. 9. Begiko, guztiz maite. 10. Zuberoako herrixka. Su, lama. 11. Futboleko, tantoa. 12. Sail, eremu. 13. Txekor emea. 14. Ontasunez. 15. Zeini.

Kike Amonarrizen umorea

Arazoak nonahi

Hona gure hornitzaile fin Jonjo Agirrek bidalitako bi txiste.

- Nagusi... Zeuk ikusi, baina soldata igo behar zenidake... Lau enpresa dauzkat atzetik!
- Bai? Eta zeintzuk dira ba?
- Gasarena, argindarrarena, urarena eta telefonoarena!

* * *

- Txapelaraino nago nire auzo-lagunaz. Ezin dut gehiago!
- Eta hori?
- Ez zait ba goizaldeko laure-

tan ate joka etorri, zoro baten pare? Pentsa! Ikararen ikaraz tala-droa eskutik erori zait!



Soluzioak

4	9	1	3	2	5	7	6	8
2	3	6	8	4	7	5	9	1
8	5	7	1	6	2	3	4	
5	4	3	6	9	8	1	7	2
7	1	6	4	5	2	6	8	3
6	2	8	1	7	3	4	5	
3	6	5	2	8	1	9	4	7
1	8	4	7	6	9	3	2	5
9	7	2	5	3	4	8	1	6

Erraza

8	7	9	6	2	1	3	4	5
5	2	4	9	8	3	7	1	6
1	3	6	5	4	7	8	9	2
2	6	8	3	7	4	1	5	9
4	9	3	1	5	6	2	8	7
7	1	5	8	9	2	6	3	4
3	4	2	7	1	9	5	6	8
9	8	1	2	6	5	4	7	3
6	5	7	4	3	8	9	2	1

Zaila

Ezker-eskuin: 1. Obus, Plecta. 2. Gorbela, Ur. 3. Igo, Hausatu. 4. Gashedun, Oric. 5. At, Enorat, Gabon. 6. Zutek, Mangolito. 7. Oramen, Aloger. 8. Aipu, Onartarazi.

Goitik behera: 1. Ozigarria. 2. Bogatu. 3. Uros, Top. 4. Sb, Deltu. 5. Elhunka. 6. Piaro, Ma. 7. Lau, Amen. 8. Sotana. 9. Kuntun. 10. Aruc, Gar. 11. Gola. 12. Alor. 13. Biga. 14. Onex. 15. Nori.

Airean kulunkatzeko gomita

HIL HONEN 6AN aurkeztu zuen Maddi Zubeldia kantari ziburutarak *Hamaika aztarna* diskoa, Ziburuko Baltsan elkartearen. Herrikideez eta lagunez inguratua, estrainako diskoaren lehenbiziko emanaldia eskaini ere.

Ez zen horregatik bakarrik agertu jendearen aitzinean, H-Eden taldearen abaroan jardun zuen, lasai, natural eta ahalkerik gabe.

2010 urtean plazaratu zen. Orduan, orain bezalaxe, H-Eden taldea osatzen duten lagun musikariek babestu zuten. Molde xumean, kantari kontsokratuen bertsioak ziren kanta haiek. Xumean emanak, goxoak eta laketgarriak.

Maddi Zubeldia ez da herenegun jaioa, ez atzo kantuan hasia ere, baina bai kantari plazaratu berria. Bere ausardia azpimarratu genuen orduan: “Irakaskuntzara emana, haurrak eta gazteak heziz –eta i(ra)kastan– zaildua, bere barne arrangurak eta nahiak musikaz espresatzera ausartu da, alajaina”.

Hamaika aztarna diskoako hamar kanta bereak dira, hitzak eta doinuak izan ere. Kanta guztiak eman zituen Baltsan-en, diskoaren errenkada berean eman, baita airean kulunkan jarri ere. Lehena, *Eme emeki*, instrumentu bakarraren apainduraz, sotil. Maitasun aitormenten ezia. Aitortu gabe ere, maitasunak iraun lezake.

Urrixka, Maitasun ttantta, Igurikatzen, Seaska hutsa da... Hurrengo lau kantetan musikarien hurbiltasunak berotu zuten kantaria astiro. Maddiren ahotsa lagunen musika notetan kulunkatu zen eztiro. Maitasuna irrika da hitzen adierazle, irrisak eta irriak dira gailentzen orobat. *Igurikatzen* kanta iraganean idatzia izan arren, irrika da oraindik tamalez.

Oro ez da baina zoria, bizitzan nola. *Mujer de vientre seco* kantak fransismora eraman gintuen. Maddi Zubeldiaren jatorriaren adierazle ote!? Jazarria eta jazarlea ezarri zituen elkarren pare. Kanta iraga-



nean isuri gabe geratu ziren malkoen isurbide izan liteke.

Irlandara bidaiatu ginen *Red is The Rose* kantaren zabuan. Arrosak gorriak dira kasuon, maitasuna betierekoa agian. Ereserkia. Irlandar klasikoa. Euskaldunon aniztasun adierazpidea, akaso. Irlandarrek gaelikoa ia galdu dute, guk euskara atxikitzen dugu alde edo moldez, baita zorionez. Euren hizkuntza ezean, euren kanten airea dastatu genuen bederen. Zerbait galdu izanaren nostalgia sentitu nuen *Éireko* aireak gure inguruan aditzean, airean kulunkatzean.

Pinpirin bat heldu zen segidan. Ene gustuko, bat hautatu beharrean, kantu doituena eta lortuena. Hitzen mezua eta airen tonua balztuan kulunkatzen baitira. Izenburuaren omenez edo pinpilinpauxari men eginez, alajaina.

Dantzari eta *Akerrak* kanten bidez plazara atera gintuzten H-Eden taldekoek, gure Edena edo Paradisua karrikan dagoela gogoratu aldera. Kantari eta dantzan aritzen den herria ez da hilko. Plazan ariz, araz!

Diskoaren azken aztarna *La ren-gaine des amoureux* da. Parisko espaloietan barna ibilarazi gintuen kantariak, bereak diren ere doinuz nola

eletan. Edota... Parisko espaloietako amodio eta nostalgia kontuak kantura ekarri zizkigun ziburutarak. Non kokatzen garen! Euskaldunok bai unibertsalak!

Nahi duenak badu nor eta non entzun, nahi duenak badu zer ikusi eta zer ikasi.

Bere lagun musikariek maitasunez eta talentuz babesten dute Zubeldia. Ene entzuterako alabaina, musikariek Maddiren ahotsa apalarazi zuten zenbait pasartetan. Edonola ere, Arkaitz Miner musikaria alboan izatea, besteak beste, adiskideen arteko lanaren saria eta ispilua da.

Bitarteko gutxirekin lan duina egin daitekeenaren miraila da *Hamaika aztarna* diskoa. Grabaketa Xano Halsouet-en Xanoker estudio xumean egin dago. Lapurdiko Urruña herriko Denen Edena izenekoan. Hortik, nonbait, H-Eden taldearen izena.

Izenak izana adierazten omen du, izanak izena ere hor nonbait. H-Eden taldekoak ez daude ordea, (h)atseden hartzekotan. Zuen txoko edo plazara joateko duzue zuen goait! Zuen zain, alajaina! ■

Mikel Asurmendi



Barra kodeak bideojokoen erantzun denbora gutxitzeko

CARNEGIE MELLON unibertsitate estatu-batuarreko eta Disney Research-eko ikerlariak bideojokoetako tresna gidatzaileen erantzun denbora 2,5 milisegundokoa izatea lortu dute.



CARNEGIE MELLON

Nintendoren Wiimote-ak 50 eta 80 milisegundo arteko erantzun denbora du, Microsoften Kinect-ek 60koa. Arestian aipatu ikerlariak Lumitrack izeneko sistema garatu eta, esan bezala, erantzun denbora 30 aldiz murriztea lortu dute. Horri esker, keinu bidezko jokoetan aro berria hasiko dela uste dute.

Lumitrack sistema jokalariaen gorputzean proiektatzen den barra kodean oinarritzen da mugimenduak detektatzeko. Barra kodeen sistema 1.576 zatitan banatzen da, eta horietako bakoitzak 25 barra ditu. Horien aldaketa da ordenagailuak hain azkar detektatzen duena. Barra kodeen proiektzioa bi dimentsiotan gertatzen da, baina barrak dauden lekutik hargailuetarainoko distantziaren aldaketa denbora errealean egiten denez, sistemak hiru dimentsiotan funtzionatzen du. ■



ttiki.com/58765
(Gaztelaniaz)

Bertoko basoa hazi egin daiteke pinu-landaketetan

EHUko Paisaia, Biodibertsitatea eta Ekosistemen Zerbitzua lan taldeak ikerketa egin berri du Bizkaiko pinu-landaketetan, eta ondorioztatu du inguruan bertoko basorik egotekotan, bertoko zuhaitz, belarkara eta iratze espezieak sartu egiten direla pinu-landaketan. *Forest Ecology and Management* aldizkarian argitaratu dute ikerlana.

ttiki.com/58766
(Euskaraz)

Azpegitura handiei begira



FUKUSHIMAKO zentral nuklearra oso urrun dago azken hatsa ematek. Egunak joan, egunak etorri, erradioaktibitateak protagonista izaten jarraitzen du, ez hango lurretan bakarrik, Ozeano Bareak ukitzen dituen gero eta herrialde gehiagotan ere bai. Garoñakoa lo dago oraingoz, eta datorren urteko erdialdean erabakiko da harekin zer egin; ezin jakin koma luzatuko dioten, esnatuko duten ala behin betirako hiltzen saiatuko diren.

Euskal Herrian abiadura handiko tren dugu galdera ikur handi baten pean. Azken urteetan egindako inbertsioa Euskal Herriaren historian lan publiko batean egindako handiena izango zen ziur aski, eta diru hori zakarrontzira botatzea gogorra egiten

zaio administrazioari. Ezin esan, baina, alternatiba ona denik; jada teknologikoki zaharkitzen ari den lan batean diru gehiago jartzeak hotzikara ematen du, batez ere aireportu eta itsas portu guztiak azpierzaraziz ditugunean.

Urte berri on! ■



Txina ilargira iritsi da

Lerro hauek idazteko unea, bandera txinatarra ilargian hara-hona darabil "jadezko untxia" izeneko ibilgailuak. Aurrerakuntza itzela lortu du Txinak ilargira iritsita, Sobiet Batasuneko teknologian oinarrituta lortu badu ere. Bidea hasi besterik ez dutela egin iragarri dute agintari txinatarrek

ttiki.com/58767
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Urrezko hazia

CERATONIA SILIQUA da algarrobondoa. Kultura atlantikoa dugu-nontzat, beste mundu bateko arbola. Hura ezagutzez gero, kultura mediterraneotik tira beste aukerarik ez dugu. *Ceratonia* izena arabierazko *querat* edo grekozko *kêras* hitzetik dator; arabiar hitzak pisu txikia adierazten du –hazia pisu neurria zen; hortik kilatea– eta grekoak adarra, fruitu duen lekaren formagatik.

Siliqua abizenak ere badu bada saltsa. Silikua, bere horretan, fruitu mota baten izen botanikoa da. Era horretako fruitua ematen duen landare familia ezagunena garai batean Gurutzedunena eta egun Brassicaceae deitzen dena da (arbia, aza, koltza...). Algarrobondoak leka erakoa du fruitua, leka-lea du hazia. Silikuarik ez. Non-dik, bada, *siliqua* abizen hori?

Silikua garai bateko Erromako txanpon bat zen. Baita pisu neurria ere. Biei algarrobondoren hazitik zetorkien izena, hura bai zen silikua. Silikua batek 0,185 eta 0,19 gramo arteko pisua du. 1.728 sili-kuarekin osatzen zen erromatar libra, zuritutako 6.912 garagar alee-kin bezala. Lau garagar ale silikua-

ko. Pisutik dator txanpona. Urretan silikuaren pisu hori zuen txapona ere silikua bat zen. Bizantziarrek eutsi zioten pisu neurri horri.

Hazia, pisua eta txanponaren nahaste-borras-te horri arabiar batek eman zion erramua: Abd al-Malik kalifa omeiak 696. urtean lehen diru sistema arabiarra abiarazi zuen, kilatea, silikuaren pisua, normalizatuz.

Algarrobo izena, berriz, hispanoarabiar *alharrûba*-tik, zein arabiar klasikoko *harrûbah* edo *harnûbah*, bietako batetik, eta horiek persierako *har lup*-etik baita-tozen. Azkeneko hasierako horrek “asto matrailezurra” adierazten du. Lekaren antzagatik ote?

Horra Mediterraneo alde horretako anabasa. Arabiarrak, omeiak, grekoak, erromatarak, bizantziarrak, pertsiarak... Azke-nean kilatea nagusi. Baina algarrobondoak badu bestelako aberastasu-nik ere: leka bazka bikaina da, azukreak eta goma ditu eta txokolatearen ordezkotik bat egiteko edo



GIANCARLO DESSI-CC BY SA

Algarrobondoa (*Ceratonía siliqua*).

alkohola sortzeko gaia da. Tuni-sian *cidre* (sagardoa) deitzen dio-ten edari bat egiten dute. Haziak Ingalaterran gozoki gisa saldu izan dira, baita kafearen ordezkotik bezala ere. Aleon irina ona da dia-betesa dutenentzat bezala hau-rrerentzat. Haren zura altzariak egi-teko ona. Zura, leka, hazia... eta lorea ezin ahaztu: arbola ar eta emeak daude, eta, arraren loreak nolako usaina duen?

Sudurraren arabera, gizonaren espermare-na edo ustel usaina. Zakilizaleentzat. ■



Izotza eta eguzkia, aurkariak


GEZURRA badirudi ere, izotzak harrapatu duen sail batean izan litekeen aurkaririk handiena eguzkia da. Izotzak landarearen gainean eta barruan urak izoztu eta hormatu ditu. Zuzenean lehenengo eguzkiak jotzen badu izotza bat-batean urtuko da, landareari egokitzeko denborarik eman gabe. Landareak izotz hormatik eguzkitara igarotzeko denbora tarte bat izatea askoz ere hobea da, tenperatura aldea eta ura izotz izatetik urtzerako tarteko aldaketa hobeto eramango baitu. Hotzarekiko landare senti-berenak, minberenak, ez jarri goizeko lehen eguzkiak harrapatuko dituen tokian. Izotze-tik eguzkitarako bat-bateko aldaketarekin gehiago sufrituko dute. Geroxeago eguz-kiak joko dituen tokian jarri, giro aldaketa xamurragoa den tokian. ■



JAKOBA ERREKONDO

Lincolnek ez zuen elefanterik nahi

AEBETAKO KONGRESUKO LIBURUTEGIA



Gettysburgeko gudua, Nathaniel Currier eta James Merritt Ives (c.1863). Abraham Lincolnek Siameko erregearen eskaintza onartu izan balu, AEBetako Gerra Zibilaren ikonografiak elementu exotikoagoak izango zituzkeen.

SIAM, 1862. Amerikako Gerra Zibil edo Sezesio Gerraren oihartzuna munduko bazter guztietara zabaldu zen, baita Asiako hego-ekialdeko erresumara ere. Siameko Rama IV.a erregeak gatazkaren berri jaso zuenean, Iparraldekoen aldeko jarrera hartu zuen, unionisten aldekoa, alegia. AEBetako presidenteari gutun bat bidali zion, hainbat oparirekin batera, eta elefante sorta bat eskainiz. Borrokan nahiz atzeragoardian materiala garraiatzeko oso eraginkorrak zirela azaldu zion monarka asiarrek.

Historia militarreko elefante ezagunenak erromatarrek mendean hartzeko Hanibal Barkaren gidaritzapean Alpeak zeharkatu zituztenak izan arren, kartagotarrak ez ziren izan pakidermoak erabili zituzten bakarrak. Epiroko errege Pirrok ere bazituen elefanteak bere armadan, eta erromatarrek lezioa ikasi eta gudu-zelaira eraman zituzten hainbatetan. Hornigaiak garraiatzeaz gain, zalditeriaren eta infanteriaren antolaketa desegiten zuten, kanpaina-gotorlekuak suntsitzen, hesi sendoak osatzen... Antzinaroko ibilgailu korazatuak ziren nolabait.

Rama IV.ak ez zekien, itxuraz, AEBetan presidente berria zutela 1861eko martxotik, eta gutuna James Buchanan presidente ohiari bidali zion. Baina erantzuna Abraham Lincolnek berak idatzi zuen:

“Biziki estimatzen ditut Berorren Handientzaren manera onak gure lurrian haziko liratekeen elefante sorta bidaltzea eskaintzerakoan. Gobernu honek eskaintza eskuzabala onartuko luke, Estatu Batuetako egungo baldintzetan erabilgarritasun praktikorik izango balu. Alabaina, gure jurisdikzio politikoa ez da elefanteak ugaltzeko latitude egokietara iristen, eta lehorrean nahiz uretan lurruna izan da gure garraio eragile eraginkorrena”.

Siameko elefanteek ez zuketuen ziurrenik gatazkaren bilakaera aldatuko. Korazatu bizidunen laguntzarik gabe ere, unionistek konfederatuak mendean hartuko zituzten. Baina ezin da ukatu elefanteek ukitu berezia emango lieketela Sezesio Gerrari buruzko koadro eta filmei. ■



Arrastoak

Lehen Mundu Gerraren mendeurrena liburuz beteta dator

ALAMY



IRISTEAR DEN 2014. URTEAN Lehen Mundu Gerra hasi zela 100 urte beteko dira, eta badirudi mendeurrenak gatazkarekiko interesa berpiztu duela historiagileengan. Bi historiagile ezagunek gerraren jatorria dute hizpide euren lan berrietan: Margaret McMillanek *The War That Ended Peace: The*

Road to 1914 argitaratu du, eta Max Hastingsek *Catastrophe*. Baina ez dira Gerra Handiaren tunel luzean barrena abiatu diren bakarrak: David Stevenson, Christopher Clarke, Scott Anderson eta Kevin Brazierrek ere beren lanak kaleratu dituzte mendeurrenaren bezperan. ■

IRATI SIENRA ZENGOTITABENGOA

«Beste eredu bat nahi dut, ez soilik Euskal Herrirako, baita nire auzorako ere»

Ernaiko bozeramaileetako bat da Irati Sienra Zengotitabengoa (Bilbo, 1990). Zuzenbidean lizentziatua, gazte mugimenduko talde ugaritan aritu izan da. Ernaik abian jarri duen *Urrats Feminista* prozesua sustatzen dihardu: “Barnera begira lan handia dugu egiteko”.

| URKO APAOLAZA AVILA |
Argazkiak: Iñigo Azkona



“Ernai ez da erantzuteko jaio. Gatazkaren konponbidean urratsak emateko, beste bizi eredu batzuk eraikitzeke, eta gazteok burujabetza klabeen kokatu eta kontrabotere bat antolatzeke; horretarako jaio gara”.

Ernai sortu eta berehala webgunea itxi eta hainbat lagun inputatu zintuzteten “terrorismoa goratzeagatik”. Egiaz, aro berri batean al gaude?

Ezker abertzaleak ziklo politiko bat jarri du abian eta jendartean sumatzen da gatazka konpontzeko aukerak eta baldintzak badaudela. Baina

estatu biak ez dira aurrerapausoak ematen ari, eroso zeuden lehengo garaietan, terrorismoaren aitzakia-rekin jendartearen arreta beste gai horretara desbideratzen zutelako. Garai berri baten hasieran gaude baina estatuak lehengo errezeta berak erabiltzen ditu: jazarpena, inputazioak...

Zein da inputaturik zaudetenen egoera?

Epaiak jakinarazi behar digu epaiketa egingo den ala ez, momentu honetan ez dakigu. Dena den, interes eta baldintza politikoen arabera izango da.

Estatuaren jomugan ikusten duzue zuen burua?

Gazteria beti dago Estatuaren jomugan, bai Ernai eta baita beste espresio asko ere. Azkenaldiko espioitza kasuek eta Ernaiko kideek bizitzako eremu guztietan izandako etengabeko jazarpenak, adierazten dute gure lana oztopoa dela.

Azken hamarkadan ilegalizazioak erabat baldintzatu du ezker abertzaleko gazte erakundeen lana. Zer ondorio atera du Ernaik hortik?

Ahalik eta modu publikoenean jarduten saiatu gara, baina ordaina kartzela denean, garbi dago azkenean klandestinitaterako joera egon dela eta horrek jendartetik urrundu gaitu. Gure eremu naturala kalean eta herritarrekin harremanetan izatea da, horrek ezberdintzen gaitu, eta ilegalizazioa gaingitu beharra zegoen eremu natural hori berreskuratu ahal izateko.

“Erantzun dinamika batean” sartuta egotea izan zen Segiren amaiera ekarri zuen autokritiketako bat.

Etengabeko erasoek horretara behartzen gintuzten. Baina Ernai ez da erantzuteko jaio. Gatazkaren konponbidean urratsak emateko, beste bizi eredu batzuk eraikitze, eta gazteok burujabetza klabeen kokatu eta kontrabotere bat antolatzeko; horretarako jaio gara. Asmatu behar dugu erantzuna ez mugatzen, baina eraso bat dagoenean, ez dugu guk soilik erantzun behar, azken batean konponbidearen kontrako erasoak dira eta jakin behar dugu jendartean hori ulertarazten.

ZukGua prozesua eta Gazte Danbada ekitaldia jendetsuak izan ziren. Parte hartzeak berdin segitzen du?

Egia esan toki batzuetan talde berriak sortu dira eta militante kopurua igo egin da. Baina ez soilik Ernain, azken hilabeteetan gazte mugimenduan oro har ernaltze bat nabari da: sortzen ari dira talde feminista asko, gazte asanbladak, komunikazioari loturiko proiektuak... Baina normala da, testuinguru sozial eta politikoaren ondorioz antolatzeko beharrezana dago.

Aurreko egoera politikoa ezagutu ez duten gazteak batu zaizkizue. Nolakoa ari da izaten belaunaldi transmisioa?



“Errepresioak asko eragin dion belaunaldiaren hutsunea nabari da, baina behin Ernai sortuta, herri eta auzoetan belaunaldi helduago batzuekin harremanetan jarri gara eta pixkanaka bagoaz betetzen hutsune hori”.

Gaur egungo militantziaren perfila 16 eta 22 urte arteko gaztea da. Guk positiboki baloratu dugu, erakusten duelako belaunaldi berrietan ere badagoela antolatzeko gogoia. Egia da kezka genuela, lan egiteko moduak eta militantzia ereduak transmititu egiten baitira. Errepresioak asko eragin dion belaunaldiaren hutsunea nabari da, baina behin Ernai sortuta, herri eta auzoetan belaunaldi helduago batzuekin harremanetan jarri gara eta pixkanaka bagoaz betetzen hutsune hori.

genuen Ipar Euskal Herriak gazte mailan bere prozesu propioa behar zuela, arazo komunak ditugun arren.

Azken batean, estrategiaren garapena ezberdina da. Momentu honetan Hego Euskal Herrian behar dugun gazte estrategiak ez dio erantzuten Ipar Euskal Herrian dagoen gazte mugimenduaren errealitateari. Errealitate ezberdinak dira eta erantzuteko moduek ere hala izan behar dute. Dena den, Ernai eta Aitzina-ren artean beharrezkoa da etengabeko lankidetzak, nolabait neba-arrebak gara.

“Hego Euskal Herrian behar dugun gazte estrategiak ez dio erantzuten Ipar Euskal Herrian dagoen gazte mugimenduaren errealitateari”

Ipar Euskal Herrian ez da Ernai sortu. Zein pisu izan dute iraganeko esperientziek erabaki horretan?

Iraganeko esperientzietan oinarritutako erabaki bat izan da. Antolakunde ezberdinak egon dira eta heldu da momentu bat non baldintza sozio-politikoak oso ezberdinak diren, bai egoera ekonomikoan, bai gatazkaren konponbidean. Hortik ondorioztatu

Ez al da amaituko, Katalunian bezala, Hego Euskal Herriko independentzia eskatzen?

Garbi dugu independentziarako subjektua zazpi lurraldeak direla. Tenpusak ezberdinak dira, baina gure erantzukizuna da denok helmuga berera iristea.

Ilegalizazio garaian, herrietan gazteek euren kabuz dinamika propioekin segitu zuten. Zein leku izango dute ekimen horiek zuen estrategian?

Lehentasuna herri eta auzoetako ekimenak dira, hain justu. Gure inguruko beharrezanetaz jabetu eta alternatiba lokalak eraiki nahi ditugu. Toki bakoitzeko errealitatea ezberdina da:

«Behin betaurreko moreak jantzita, ezin dira erantzi»

Mugimendu sozialistetan feminismoa “gerorako etxeko lan” moduan hartu izan dela diozue. Euskal Herrian ere hala gertatu da?

Bai, eta gaur egungo ezker abertzaleari begiratu besterik ez dago. Ezker abertzalean prozesu desberdinak eman dira feminismoaren inguruan baina duen estrategikotasuna ez zaio eman, bigarren tokian utzi da. Oraindik jende askori kostatzen zaio bere burua feministatzat hartzea, beste askok, feminista izanagatik ere balore patriarkalak erreproduzitzen jarraitzen dugu. Egia da emakumeok ikusgarriago garela orain ezker abertzalean, baina barnera begira lan handia dugu egiteko.

Ernai “independentista, sozialista eta feminista” da, baina abizenetik harago, orain aipatu duzun barne lanari ekin diozue Urrats Feministarekin. Zer da?

Feminismoa helburu estrategikotzat hartzeak eztabaida asko sortu zituen ZukGua prozesuan: Zergatik feminista bai eta euskalduna edo ekologista ez? Azkenean apustu bat da, feminismoa guretzat balore bat delako, eta sozialismoa feminismotik eraikiko dugulako. Dena den, ikusi genuen izena jartzeak ez gintuela feminista egiten, hortik erabaki genuen barne prozesua abiatzea.

Lau urteko prozesua izango da. Eta ondoren zer?

Orain oinarritzko hutsune bat betetzera goaz, kontzientzia feminista piztera, feminismo erdua zehaztera eta praktika feminista garatzera. Lau urteko prozesua da, baina helburua betaurreko moreak jartzea da, eta behin jarrita ezin dituzu sekula kendu, ahal-duntze bat da eta erantzuteko beharra sortzen du.

Teoria eta praktika uztartzeko kaiera argitaratu duzue.

Liburuxka auzo eta herrietan landuko dugu, eta antolakunde mistoa garen neurrian, militantzia osoarentzat dago pentsatua.

“Mutilek orain arte jan ezin izan duten tarta zatitxo bat da”, aipatu zenuen Donostiako Dokan egin zenuten aurkezpenean. Zer esan nahi zenuen zehazki?

Ezker abertzalean eman izan diren prozesu feministak emakumeontzat izan dira. Nire iritzia da emakume feminista pila bat gaudela ezker abertzalean —ez egon beharko genukeen erdiak ere— eta feminismoaren inguruan gabezia eta ezjakintasun handia duten gizon asko, eta interes falta ere egon da. Hori saihestu behar dugu. Gizonak sekula landu ez duten gai batera jauzi egingo dutela, horixe esan nahi nuen.

Baina hori ez da ezker abertzaleko emakumeon erantzukizuna izan. Guk sortu ditugu guretzako espazioak; gizonengandik ez da atera gai hau lantzeko eurentzako esparrurik, eta horrek asko adierazten du.

Gai horrek eztabaida ekarri du.

Mugimendu feministaren baitan pil-pilean dagoen eztabaida da. Guk ez dugu momentu batean ere zalantzan jarri nahi emakumeontzako espazioak egon behar dutenik. Azken batean emakumeok baik ez gauden jendarteko eremu bakarra da; horregatik sortzen du hainbesteko eztabaida emakume taldeen aferak. Gizonak ez zaudete ohituta norbaitek esatea “zuek hona ezin zarete etorri”; emakumeok oso ohituta gaude espazio batzuetatik betatuta egotera, esplizituki eta inplizituki, gizonak ez, eta hori subertsiboa da, azken finean emakumeen kontrabotere bat da.

eskualde batzuetan langabezia tasa handia dago, beste batzuetan industria suntsitu da eta proiektu berriak sortu eta burujabetza praktikan jarri beharko da. Ernaiko militanteak beste

gazte mugimenduetan ere badabilta, azken batean gure herrietan lan egiten dugun pertsonak gara. Nik beste eredu bat nahi dut ez soilik Euskal Herrirako, baita nire auzorako ere.

Azken urteetan prekaritateak gora egin du nabarmen gazteen artean. Zer proposatzen duzue horri aurre egiteko?

Kontratu prekarioak sortu dira gazteontzako bereziki, langabezia



IZEN EMATEA
urtarrilaren 27a baino lehen

blogetan!

BLOG IZARREN BILA

Proposatu zeurea edo gehien atsegin duzun bloga!



Antolatzailea



www.blogetan.com

SARIAK: Bernat Vidal artistaren garaikurra | 200€ diru txekoa | ARGIA n kolaboratzeko aukera

Laguntzailea





“Presoek hartzen duten erabakia hartzen dutela ere, Ernainen babes eta prestutasun osoa izango dute aurrera eramaten laguntzeko”.

keinu txiki bat da, atzetik lurrikara bat eragin dezakeena. Lau gazte horien kasuan, erabaki pertsonalak eta kolektiboak berez denen artean adostutakoak dira. Baina gerta liteke desobeditu eta oihartzunik ez izatea. Apustu bat da azkenean. Dena den, oso errotuta dagoen borroka moldea da eta gaur egun planteatzen duguna da izugarri zabaltzea, desobedientzia kolektiboa badelako modu bat elkartasun hutsetik konpromisora igarotzeko.

Parot doktrina amaituta ere, oraindik preso ugari dago kartzelan urte askotako kondenarekin. Zer egin beharko litzateke espetxe politika aldatzeko?

Presoena ez da ezker abertzalearen afera bat, herri honek bizi duen gatazka baten ondorioa da, eta beraz, herri guztiaren afera da, hori sozializatu behar dugu. Horretarako kalean egon behar dugu. Urtarrilaren 11n sekulako jendetza egongo da Bilbon, baina egunero behar dugu sekulako jendetza, Estatua deseroso jartzeko.

Presoen kolektiboan hausnarketan ari dira, aurrera begira nork bere urratsak eman edo ez. Jon Mirena Landak gurean zioen **“bloke”** izaerak desagertu behar duela espetxe politika aldatzeko.

Kolektiboan eztabaida izaten ari da eta lehenago edo beranduago horren berri izango dugu. Hartzen duten erabakia hartzen dutela ere, Ernainen babes eta prestutasun osoa izango dute aurrera eramaten laguntzeko. Erabakia denen artean hartzen duten heinean kolektiboa da, zelan gauzatzen duten beste kontu bat da,

baina estrategia bateratu bat izaten jarraitzen du. Egoera ezberdinak bereizita, bloke zabal horren barruan dauden guztiak joan behar gara kalea ateratzen. Baina ez soilik presoak, azkeneko iheslaria hemen egon arte gatazka hau ez dago konpontzerik. ■



tasaasko igo da, ikasketa prozesua luzatu egin da lan merkatura sartze-ko zailtasunengatik... Horren aurrean badauzkagu aukerak, izan autoenplegua edo kooperatibak. Gure beharrak asetzeko proiektuak sortu behar ditugu, alternatibak.

Alternatibak jada jarri dira martxan (moneta lokalak, ekonomia sozialeko proiektuak, baratze taldeak...). Ernain ba al duzue ekimen zehatzik esku artean?

Horretan gabiltza. Gazteok mila aukera dauzkagu, baina sistemak sinetsarazi digu ez garela gai, beste batzuentzat egin behar dugula lan, eta beldurra sartu digu ez gaitezen arriskatu. Egoera mingarria den eskualdeetan alternatiba indartsuak martxan jartzeko momentua da. Toki batzuetako egoerak migrazio handia ekarri du, ekonomiaren suntsiketaren ondorioz gazteek bertan etorkizunik ez dutelako ikusten. Hori oso arriskutsua da. Asmatu behar dugu toki horietan gazteria eta ekonomia suspertzen.

Hazkunde garaietako kontsumoaren kultura gaingidituko duen pentsaera aldaketarik sumatu al duzue gazteen artean?

Horren inguruan formatzen ari gara barne mailan. Guk ere sistema kapitalista eta patriarkalaren alineazioa jasotzen dugu eta bagara kontsumistak. Eredur hori jarraitzen diogu gainera, esaterako, zero zabor

eredua ez dugu egunerokoan aplikatzen. Hori dena eraldatzen hasi behar dugu, gugandik hasita. Orain gabonak heldu dira eta herri askotan kontsumismoaren inguruko ekimenak izango dira, baina beherapenen ostean ahaztu egingo zaizkigu.

Desobedientzia zibila aldarrikatu izan duzue borrokarako tresna moduan, izan Herri Harresiak sortzeko edo LOMCeri erantzuteko.

Desobedientziak bidegabekeriak oso argi ikusarazten ditu, kriminalizatzeko zaila den modu batean. Esparru askotan erabili daiteke gainera. Oso ikusgarria da modu kolektiboan erabiltzen denean, Herri Harresiekin ikusi dugun bezala, baina norberak bere eguneroko erabakietan ere praktikan jarri dezake.

“Gazteok mila aukera ditugu, baina sistemak sinetsarazi digu ez garela gai, beste batzuentzat egin behar dugula lan”

Desobeditzea hautu pertsonala da, asteotan epaitu behar zituzten lau gaztek hori aukeratu dute, esaterako. Baina zertan geratzen da ahalegin pertsonal hori gainerakoek ere ez badute egiten?

Desobedientzia erabili liteke jendar-teari dei egiteko berak ere desobeditu dezan; norbaitek egiten duen

15.000 lagun Nafarroako Gobernuaren ehizaren kontra



LABSINDIKATUA.ORG

Mani'Festa abenduaren 28an, Seaskak antolatuta

JAI GIROA IZANGO DU Seaskak urte hondarrerako antolatu duen Mani'-Festak, baina kalera ateratzeko arrazoia bestelakoa da. Seaskak ikastolen egoera larria dela adierazi du, Frantziako Estatua batetik eta bestetik ari da kolpeak banatzen. Suprefetak eta prefetak, Falloux Legea eskuetan, ikastolen eraikinak eta haiek paratuta dauden lurrak dituzte jomugan. Mehatxuka ari dira, herriko etxeek lurrak uzten dizkietelako ikastolak paratzeko eta batzuetan eraikinak berak utzi ere bai. Hendaia, Beskoitze eta Hazparne dira azken biktimak.

Paxkal Indo Seaskako lehendakariaren ustez, Jean-Marc Ayrault lehen ministroak Eskualdeko Hizkuntzen Karta berresteko eman duen ideiak ez du zentzurik, era berean hizkuntza salbatzeko tresna, murgiltze eredu, suntsitu nahian baitaibiltza.

D EREDUKO IRAKASLEEK ETArekin zerikusirik daukaten ala ez, eta eskolako liburuetan "Nafarroako errealitate instituzionala" errespetatzen den ala ez. Bi gai horiek bururatu zaizkio orain Nafarroako Gobernuari eta temati ari da euskarazko irakaskuntzaren aurka, beste behin. D ereduko hainbat ikastetxe astindu du eta "intoxikazio kanpaina" salatu dute. Hegoalde, Amaiur, Iturrama eta San Frantzisko ikastetxeetako guraso elkarteek haien seme-alaben irakasleen lana defendatu dute. Guardia Zibilaren txostenak eskola publikoko D ereduko irakasleak jarri ditu jomugan. Irakasleok babesteko eta euskarazko

irakaskuntzaren alde, hainbat eragilek deituta, manifestazioa egin zen joan den astean. Deitzaileen artean zeuden ELA, LAB, EILAS, Sortzen eta Ikasle Abertzaleak. 15.000 lagun atera ziren Iruñeko karriketara *Hezkuntzan, kolore guztiak* lelopean.

Nafarroako Gobernuaren bigarren adarra aipatu dugu: eskolako edukiak "Nafarroako errealitate instituzionalarekin" bat datozen aztertuko dute. Dena dela, ez da gauza berria, lehen ere egiten zuten, baita edukiren bat ilegaltzat jo ere (Euskal Herriko mapa agertzea illegala da Nafarroako Gobernuaren tzat). Hemendik aurrera behaketa zorrotzagoak egingo dituzte.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Nora doa Euskaltel?

EUSKALTELEKO LANGILE GEHIENEK, joan den astean, hiru eguneko greba egin zuten euren zerbitzuak kanpora eramatearen kontra eta enpleguaren alde. Enpresak otsailean "sistemen" zerbitzua azpikontratatu eta 40 langile kaleratu nahi ditu. Gisa berean, teknologiararen alorreko beste 150 langile ere kaleratu nahi ditu apirilean, eta hala, 2014an %40 murriztuko luke bere lantaldea, egun 550 pertsonakoa dena. Duela 18 urte sortu zenetik lehenengo greba dute. Orain hilabete batzuk, berriz, Euskaltel txirrindulari taldearen desagerpena iragarri zuten finantzazio faltagatik. Eta aldi berean jakin dugu, telekomunikazioetako euskal operatzaileak 2012an 48 milioi euro neto (zergak ordaindu ondoren) irabazi zituela eta etekin hori gaindituko duen duelan.

Zer ari da gertatzen Euskaltelen? Nora doa? Beste operatzaile multinazional batek xurgatu edo salduko al du? Orankek edo besteren batek akaso? Euskaltel herri ikuskerarekin jaio zen, gehiengan finantzazio publikoa izan zuen (aurrezki kutxak, Eusko Jaurlaritza...). Gaur, bere kapitalek atera dira Eusko Jaurla-

ritza eta beste bazkide txikiago batzuk (Endesa eta Mondragon Taldea), eta operatzaileak Kutxabanken (%49,9) eta Trilantic eta Investindustrial atzerriko inbertsio fondoen (%48,1) esku dago. Kutxabank kapitaleko %67,93 izatetik %49,9 izatera igaro da. Gainerakoa, %2a, Iberdrolaren esku dago IBVren bidez.

Ez da harritzekoa langileak Euskaltelen etorkizunaz kezkatuta egotea, "marrazo" teknologikoren bati salduta amaituko duen beldur dira. Hori gertatu artean, Euskaltel bere egiturak arinduz ariko litzateke (enplegua suntsituz) marrazoak errazago murtzikatu dezan. Mario Fernandez Kutxabankeko presidentek esan duenez "ez dago desinbertsio operaziorik, Euskaltelen emaitza kontuen bideragarritasun plan bat baizik, eta horrek ez du zergatik ekarri behar lanpostuen galerarik". Langileek ez dituzte hitzok sinesten. Logikoa, marrazoak inguruan biraka ikusten dituzte aspaldion.

Juan Mari Arregi



Portugesa bada, portugesez idatzi

80ko hamarkadaren hasieratik dago indarrean gaur egun nagusi den galiziera estandarraren araua. Hura sortu eta ia berehala, bestelako proposamena egin zuen AGALek, *reintegracionismo* izeneko mugimenduaren barruko elkarteak. Funtsean, galiziera eta portugesa hizkuntza bera direla gogorarazi nahi dute.

| UNAI BREA |

GALIZIAKO hiri handi batean gaude, demagun Vigo dela. Langile auzo bateko kale luze batean, horman margoturik, greba orokorra egiteko dei bi, elkarrengandik gertu. Galizieraz idatzita daude biak, baina desberdin. *Folga xeral* aldarrikatzen baitu batak, *Greve geral* besteak. Argitu dezagun, aitzina jarraitu baino lehen, *xeral* eta *geral* berdin ahoskatzen direla. Zuzen esateko, aski duzu bietatik lehena euskaraz bezala irakurtzea.

Folga xeral idazkera Real Academia Galega (RAG) galizieraren akademiak emandako arauarekin bat dator. Hori da azken 30 urteetan hedabide gehienetan eta irakaskuntzan zabaldu den hizkuntza moldea, hiztunen gehiengoak onartutakoa, galiziar alderdi abertzale nagusiak barne. Laburtzeko, ILG-RAG araua esaten zaio, “ilgarra” ahoskatuta. *Greve geral*, berriz, Associação Galega da Língua (AGAL) elkarteak 80ko hamarkadaren hasieran egindako proposamenari men eginez idatzitako galiziera da. Elkarteko presidente Miguel Penasek azaldu digu AGALen pentsamoldearen muina.

Reintegracionismo izeneko ildoaren ordezkariak behinena da AGAL, Penasek esan digunez. “Elkartea 1981ean sortu zen, eta azken batean XIX. mendean *galeguismo*-aren hasta-

penekin batera jaiotako mugimendu baten gauzatze organikoa da. Naziotasunaren kontzientzia politikoa sendotu ahala, galiziar batzuk konturatu ziren herri honetako hizkerek hizkuntza bat osatzen zutela, eta saiatu ziren hizkuntza hori bestelako egoera batera eramaten”. Horren barruan agertu zen *reintegracionismo* izeneko korrantea. Berrintegratzeazaletasuna, euskaratu genezake.

Minhotik haragokoa aintzat hartu

“Korrante hark zioen guk hitz egiten dugunak eta portugesak jatorri komuna dutela”, diosku Penasek. Hori da *reintegracionismo*-aren abiapuntua, eta inork ez du ezbaian jartzen. Koherentziaz, AGALek dio galiziera estandarra egituratzeko orduan kontuan hartu beharko litzatekeela Minho ibaitik haragokoa. Besteak beste, gaur portugez izenez ezagutzen ditugun hizkerak horiek estatu propioan garatu eta erabat normaliza-

tu direlako. Galizierarentzat ispilu hoberik ezin aurkitu, berrintegratzearen aldekoek defendatzen dutenez. Izan ere, “galego” eta “portuges” hitzak sinonimotzat ditu Penasek. Hala, AGALen araua eta portugesearena ia guztiz berdinak dira, galizieraren berezitasun gutxi batzuk albo batera utzita. Esaterako, portugesezko -ção hitz amaiera -ção da AGALen galizieran.

AGALen ustez, galiziera estandarra egituratzeko portugesa baino ispilu hoberik ez dago, portugez izenez ezagutzen ditugun hizkerak estatu propioan garatu eta normalizatu direlako



Ez da eztabaida ortografiko hutsa

Lehen begi kolpean nabarmentzen dena diferentzia ortografikoak dira, baina auzia harago doa. “Izan ere, ortografia ez da garrantzitsuena”, dio Penasek. “Esan ohi dut filosofia kontua dela. Niri elkarriketa egin eta gero portugaldar batekin hitz egiten baduzu hizkuntza bakarra edo hizkuntza bi entzungo dituzu, zuk nahi duzuna. Bata zein bestea hautatzeko argudio nahikoa izango duzu”. *Reintegracionismo*-aren aldekoek salatzen dute ILG-RAG araua egitean indarra eman zitzaiola galiziera portugesetik bereizten duten elementuei, idazkeran zein hizkuntzaren bestelako arlo batzuetan. Sarritan, ortografiari dagokionez —eta ez bakanrik—, gaztelaniaren aldera joz.

2006an, Real Academia Galegak portugaldar “zaporedun” zenbait aldaketa ezarri zituen. Esaterako, esaldi hasierako galdera eta harridura ikurrak kendu zituen; “ez zeukan ez hanka ez bururik, munduan gaztelania da hala egiten den hizkuntza bakarra”, dio Penasek. Kontsentsu ortografikoa deitu zitzaion aldaketa sorta hari, baina ez zen nahikoa izan *reintegracionismo*-aren aldekoek ILG-RAG araua aintzat har zezaten. Bide batez, gehitu dezagun akademiak uko egin diola gurekin berba egiteari, gai honi buruzko adierazpen ofizialik egiten ez duela argudiatuta.

Zein dago herri hizkeratik hurbilen?

Miguel Penasen iritziz, AGALek sustatzen duen galizieraren estandarra gutxiago aldentzen da herri xehearen hizkeratik, indarrean dagoen estandar ofiziala baino. Alta, 30 urteko erabilerak eragina izan du, eta dagoneko batzuei ahaztu egin zaie nola hitz egiten zen duela ez hainbeste. Ia beti ematen da asteko egunen adibidea, zeharo paradigmakoa da eta.

Tradizioz, Galizian Portugalen bezala izendatu izan dira asteko egunak, eta oraindik hala egiten da zen-



AGAL-CC BY SA

Miguel Penas (Donostia, 1976), AGALeko presidentea. Haren ustez, *reintegracionismo*-a gero eta onartuagoa da galiziar jendartearen, oraindik gutxiengo baten jarrera izanda ere.

bait lekutan, mugatik hurbilenekoe-tan batik bat: *segunda-feira*, *terça-feira*, *quarta-feira*... eta horrela denak igandea (*domingo*) izan ezik. Espainiaren presioagatik eskualde askotan galdu egin ziren hitzok, eta 80ko hamarkada hasieran, Real Academia Galegak bere estandarra proposatu zuenean, forma berriak eman zituen,

Miguel Penasek dio AGALek sustatzen duen galizieraren estandarra gutxiago aldentzen dela herri xehearen hizkeratik indarrean dagoen estandarra baino

gaztelaniazkoa hartu eta galiziar fonetikara egokituz: *luns*, *martes*, *mércores*, *xoves*... Hiztunei arrotz zaie hori orde, Miguel Penasen esanetan. Ezagutu ezagutzen dituzte, gazteenek eskolan eta denek telebistan ikasi dituztelako, baina ohiko jardunean gaztelaniazkoak gailentzen dira. Garai bateko *segunda-feira*-z eta abarrez ez dira gogoratzen, kasu

askotan. “Gure aurkako argudio modura esan ohi da”, kexu da Penas, “AGALen arauarekin jendeak berriz ikasi beharko lukeela bere hizkuntzaren zati handi bat. Eta hara, gureak ez du galiziera ofizialak baino gehiago behartzen gauza berriak ikastera”.

Hiztun kopuruaren auzia

“Gaur egun, Galiziako lurraldean, galizieraren nazioarteko izaera ez ofizialki aitortua, eta aldi berean hiztun kopurua beherantz doa”, irakur daiteke AGALen webgunean. Gaztelania eta ingelesa bezalako hizkuntza handien defendatzaileek usu erabiltzen dute argudioa bere egiten du, nola bait, Miguel Penasek: askoren hizkuntza izateak laguntzen du munduan ibiltzen.

Ikuspuntu horretatik, erabilgarritasuna galizieraren aldeko arrazoi bihurtzen da, nortasun sentimenduari gehitu dakiokena. Alta, ideia horren kritikak aurkitu ditzakegu *reintegracionismo*-aren jarraitzaileen gan ere. “Hizkuntza bat ez da hobe edo okerragoa hiztun kopuruagatik”, dio Teresa Moure militante independentistak *Praza Pública* webgunean argitaratutako artikulu batean; “bestela, heriotzara kondenatuko genuke euskara, esaterako. Ez da etikoa milioika hiztunen aldarria egitea”.

Ez da kasualitatea Moure aipatu izana, ez eta artikulu hau hasteko greba orokorraren adibidea hautatu izana. AGALez gain, gaur egun *reintegracionismo*-aren alde sutsuen dihardutenak ezkerreko talde independentistak dira, salbuespenak salbuespen. Auzia politikoa ere bada eta. Hona zer

dioen Mourek: “Galego-portuguesaren eta galego-gaztelaniaren artean hautatzera behartzen gaituen ataka politikoki konpontzen da: galego-portuguesa ukatu egiten da, ez dezagun badaezpada geure independentzia aldarrikatu”. Ortografian ere badagoela iraultza egi-terik, alegia. ■



New Yorken oro da *fast* eta *low cost*, langileak barne

Klaseen arteko berdintasun ezari dagokionez mundu aberatseko gizarteek 1920koen gero eta antza handiagoa dutela, horra gero eta sarriago aditzen den argudioa. New York izan daiteke atzerakako joera horren erakusgarri nagusietakoa, jendeen erreakzio bezala azken udal bozketan Bill de Blasio aurrerazalea nagusitzea eragin duena.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

BERDINTASUN GUTXIENA DUEN herrialdea, mundu aberatsean, AEBak, eta AEBetan berdintasun ezan txapeldun, New York. Hori bat. Hona bigarrena: New Yorkeko estatuan 2008an sortu diren enpleguen %97 otordu azkarren sektorekoak dira. Hirugarrena: Bill de Blasiok New Yorkeko alkatetza irabaztean, 1920ko hamarkadako klase politika berpiztu da.

Hiru esaldi horiek bereizi ditu Bartzelonako *La Vanguardia* egunkariak Andy Robinson kazetariaren “*Historia de dos hamburguesas*” erreportaje bikainetik. Liverpoolen (Britainia Handia) 1960an sortua, soziologia eta ekonomia ikasia, Katalunian egoitza izanik munduan zehar dabil Robinson erreportari. “*Un reportero en la montaña mágica*” liburuan azaldu ditu Davoseko gailurrean biltzen diren eliteen barrunbeak eta trikimailuak.

Orain Robinsonek *La Vanguardian* “*Urbes globales / Urbes desiguales*” kronika multzoan kontatu du nola handitu den berdintasun eza munduko zenbait hiri nabarmenetan: New York, Londres, Paris, Rio de Janeiro, Bartzelona... AEBetako miseriaren adierazle nagusia, gezurra dirudien arren, ez baita Detroit, New York bera baizik.

AEBetako bizimodua *Friends*, *Sexo en Nueva York* eta oro har tele-

bista guztietan ikusitako serie erge-len arabera delakoan bizi diren gazteei derrigor irakurrarazi behar-ko zitzairen “*Historia de dos hamburguesas*” erreportajea. Eskuineko argazki handitik hasita: neoizko argiek distira egiten duten McDonald zentrikoaren atarian bezeroak harrapatzeko ahaleginean ari dira *Mini Mouse* eta *Sesam Street*eko mamua. Azpiko azalpenak: “Otor- du azkarrak, enplegu merkeak. Urteotan milaka enplegu sortu dituzten *fast food* kateetako langile askok gizarte zerbitzueta jo behar izaten dute beraiek jan ahal izateko”.

Ez bat eta bi, New Yorkeko piz- zeria eta hamburgertegi merkeetan beharrean ari diren lautatik batek behar du udal zerbitzuen beharra jateko. Kazetariak elkarrizketatu ditu astean 34 orduz lan eginda 250 dolar (185 euro) kobratzen duten zerbitzariak. Zabor-janaren saltzai- leek erakunde publikoei 7.000 milioi dolarreko gastua eragiten diote laguntza sozialetan.

Datu hauekin Berkeleyko unibers- tsitateak erakutsi du herrialde osoko izurritea dela, “*Low-wage fast-food jobs leave hefty tax bill, report says*” ikerla- nean. “*Fast-food* industriak kentzen dizkie urtean 7.000 milioi dolar AEBetako zerga-emaileei, zeren eta langileei hain gutxi pagatzean hauen

AP agentziarentzako Ben Margotok egindako argazkian, abenduaren 5ean Kaliforniako Oaklandeko McDonald’s baten atarian langi- leak protestan. Lehen planoan ageri den gizona *Ronald McDonald* pertsoniaz mozo- rroturik dabil kantari. *Ronald McDonald* pai- lazoz jantzitako pertsonaia erabiltzen du mas- kotatzat McDonald’s *fast food* kate erraldoiak. Telebistako iragarkietan *McDo- naldland*en bizi da, abenturetako lagun dauz- kalarik *McCheese* auzapeza, *Hamburglar*, *Grimace*, *Birdie* eta *Early Bird* eta *The Fry Kids*, denak ere korporazioak eskaintzen dituen zabor-janetako osagaiak. Argazkian ikus daitezke protestan ari diren beharginen zenbait aldarrikapen, “Justiziarik gabe Bake- rik ez” dioen afixa eta langileari gutxienez orduko 15 dolar pagatzea eskatzen duena. *Ronald McDonald* desmitifikatzen duen ekin- tzailearen eta gainerako langileen artean, gaztetxoak bazkaltzera noiz sartuko zain.

%52ren familiak behartzen baititu laguntza sozialak eskatzera. (...) Baita astean 40 orduz beharrean ari direnak ere. *Fast food* industriak urtean 200.000 milioi dolar mugit- zen ditu. Bere langile arruntek batz besteko orduko 8,69 dolar ira- bazten dute. %13ri baino ez zaio ordaitzen osasun zerbitzurik”.

1928an baino okerrago

Hedabide nagusiek asko aipatu dute New Yorken berpizkundea, bere ekonomikoaren bizkortzea. Baina biziberritzea oinarrituta dago obre- ro jendea beherantz mugiaraztearen gainean.

Orain dela gutxi arte bere burua klase ertainaren kideatzat zeukan jendeak bere irabazi maila apaltzea- rekin batera mugitu beharra dauka lekuz ere. Harlem, Broklyngo peri- feria, trapitxeroen sehaska zela esa- ten zen Bed-Stuy... horiek orain bilakatu omen dira aberatsen jomu- ga. Soldatak jaitsi ahala igo dira etxeen prezioak, erosteko bezala alokatzeko. Langile prekario bihur- tuak urrunago joan beharko du, bere lekua urrutiko norbaiti utzita.

Robinsonek hautatu dituen hiri guztietan fenomeno bera deskriba- tu du. Erakunde publikoek gastue- tan ezarritako murrizketengatik gero eta abandonatuagoak geratu dira auzo batzuk. Aldiz, betidanik



chic izan direneta luxuzko komertzioak ugaritu dira, jatetxe aberatsak, eta etxebizitzaren prezioa suziariaren moduan igo. Pobreak pobreak, aberatsak diru pilak nonbait inbertitu behar, higiezinaren espekulazioa zabaltu da oraintsu modan jartzen hasi diren auzoetara. Bat harritzen da jakitean Sao Pauloko favela batzuk sartuta daudela zoramen horretan, itsaso alderako ikuspegi zabala daukatenak noski.

Kazetaria etxeen prezioei begira ibili da New Yorkeko karriketan. Oinezko agure batek esan dio: “Pisu kaxkar bat lau milioi kostako zaizu, adiskide. Londresen bezala da, mundu osotik datoz beren dirua uztera, Europatik, Asiatik”. Lau gelako *penthouse* bat ikusi du salgai

39,5 milioi dolarretan. Saltzailea Robert de Nioren semea, higiezinaren agente bilakatua.

Berdintasun ezaren larritze odoltsua AEB osokoa da. Pew Research Centerrek berriketan plazaratu du “AEBetako irabazien berdintasun eza, hamarkadotan handitzen ari dena, gaur da 1928tik izan den handiena”. Berkeleyko unibertsitatean ari den Emmanuel Sanz ikerlariak atera dituen kontuak. 1928an, krisi handi haren bezperan, familien goiko %1ek jasotzen zituen AEBetako irabazi guztien %24 eta beheko %90ek irabazien %51.

Gero, tartek txikiagotuz joan ziren. Gerraren akaberan, 1944an, %1 aberatsenak irabazi guztien %11 zeukan beretzako, eta azpiko

%90ak irabazien %67. 70eko hamarkadan hasi ziren tartean berriro handitzen. Azkenean, 2012ko datuetan, jendeen %1 aberatsenak irabazi guztien %22,5 dauka beretzako eta azpiko aldeko %90ak lehenbiziko aldiz erdia baino gutxiago, %49,6.

David Harvey geografo marxistaren ustean, 1970etik gaurdaino datorren okerragotze horren laborategia New York bera izan da. Hemen ezarri zuen AEBetako eliteak lehenbizikoz proiektu neoliberal berria, New Yorken porrot ekonomikoa deklaratu, gero erdua Ronald Reagan eta Margaret Thatcherren eskutik mundu osora zabaltzeko, izan Hego Amerikara, Britainia Handira eta azken krisiarekin Europa osora.


1975ean bankuak egin ziren zorretan itotako udalaren benetako jabe, sindikatuen indarra txirritxilatuz, sektore publikoa desegin eta krisis fiskalaren erdian aberastasunaren banaketa berriro antolatzen hasi, aberatsen mesedetan. Harveyren hitzetan, “New York aitzindaria izan da Reaganek hartutako politika neoliberaleretan, mundu mailan Nazioarteko Diru Funtzak 80ko hamarkadan ezarri zituenetan (...) erakusteko New Yorki gertatutakoa edonori gerta dakiokela”.

Udazken honetatik ikuskizun dago De Blasio alkate berriak zertan eta zenbat aldatu ahal izango duen egoera hori. Bere programa aurrerazaleak itxaropen handiak piztu ditu. Mundu osoa dauka zain. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona



DANI BLANCO

Kazetarion ajeak

JOAN den asteko orri honetako artikuluan aipatzen nuen Kataluniako Legebiltzarraren erreferendum eskaera otsailean edo martxoan aztertuko zutela Espainiako Legebiltzarrean. Eta ez, orain agudoen apirilean izango ei da eta Kongresuan prozesua geldotzen bada, akaso irailera arte ere ez litzateke jorratuko. Generalitateak, formalki, irailean dei dezake agian. Eta balizko independentzia aldarrikapenaz ere jardun nuen, baina astebete geroago nahas-mahas ikusten dut.

Eta lehengaia bilduta, analisira abiatzen garenean, zer eta nola idazten dugun horrekin jarri dut ganbara dantzan. Sarri gure buruarekin lehian, analisisa borobildu eta onena eskaini nahian, kazetari garena eta ez igarle ahazteraino. Pista emaila eta ez orojakile-asmatzaile. Eta hainbat burutazio etorri zaizkit burura, besteak beste, kasurik onenean irakurlearen mailan gaudela gogoratzeko, eta ez haren gainetik.

Aipatu kronikaren edukira itzuliz, nik ez nituen datak asmatu, jakina, gai horien gorabeherak lehen lerrotik jorratzen dituzten hedabideen esanak jarraitu nituen, bai espainiarrak eta bai katalanak. Baina haiek ere huts, nik jarraitu eta ez nien pista egokia eman **ARGIA**ko irakurleei. Eta horrek kezkatzen nau, kasu horretan akats handia ez bazen ere, izan zitekeelako.

Hipotesi nagusi bat ere jorratu nuen artikuluan hartan, bati baino gehiagori irakurrita, erreferenduma ez zela egingo eta aurreratutako hauteskundeetatik ateratako batasun gobernuak independentzia aldarrikatuko zuela. Asteburuko irakurketen ondoren, gaitza baina sinesgarria egin zitzaidan.

Astebete ondoren, eta beroarenak kenduta, hipotesi ausartegia iruditzen zait, nahiz eta jakin, posible dela. Independentzia aldarrikatu 2014aren bukaeran edo 2015eko lehen seihilekoan?

Azkarregi. Hori hain azkar eginenez gero, Salvador Cardus soziologo independentistak dioen gisa, Katalunia-Espainia zero-akats lehiaketan tantoa Espainiarentzat litzatekeelako. Cardusek puntu interesgarria eskaini zuen iragan astean Vilawebi eskainitako elkarriketan: “Aurrez aurreko talka ekarriko ez duen borroka hasi da, hau erresistentzia borroka da. Akatsik egiten ez duenak, edo ahalik eta gutxien egiten duenak, harek irabaziko du gerra hau”.

TALKA atera dela baliatuz, zenbatetan aipatu genuen “trenen talka” ospetsua Ibarretxe Planaren garaian? Nik hainbatetan. Zenbatetan irakurtzen da orain Katalunia-Espainiarekin? Berriz ere askotan. Nork sartu zuen “trenen talka” gure lerro eta uhinetan? Gure burmuinetan? Beldurra barreiatu nahi duenak, bistan baita talka horretatik bi trenak ateratzen direla gaizki, baina gaizkien txikiena. Horregatik, abentura arriskutsuak saihestu beharko litzuke txikiak, dio handiak. Baina txikiak ez du talka gura, akordioa baizik, eta ezinean, ihesa, baina ez talka. Eta gu jo eta su trenen talkarekin, kontzeptua hutsala balitz moduan.

Inguruko kazetarien lerroetan ere aurkitu ditut saihestu beharrekoak, eta ez nabil Intereconomia eta Iturruma Institutuko barrabaskeriez, gure ohiko jardueraz baizik, egunerokoaren inertziak idazten duguna oso garrantzitsua dela ahaztarazten digulako makinatxo


batean. Kasu honetan kazetaria Joxi Lasa eta Joxean Zabalaeren ehorzketan Ertzaintzaren karga baloratzen ari da eta hala dio: “Herri honetan inoiz izan den basakeria handienetarikoa”. Eta bai, basakeria handia izan zen Ertzaintzak Tolosako hilerrian egindakoa, biktimekiko memoria eta begiruneaz hainbeste jarduten den sasoiaren gertaerak ikertu eta zigortzeko modukoa. Baina “herri honetan inoiz izan den handienetakoa...”. Nafarroako konkista urte luzeetako barrabaskeriak baino gehiago? Soldadu ingeles eta portugaldarrek Donostia duela 200 urte erre zutenekoa baino gehiago? Gernikako bonbardaketa baino gehiago?

GUAYISMOA-RENA da beste arriskua, ustezko irakurle-jende xeheari keinu egin nahia, norbera nola geratzen den ohartu barik. Ondorengo zutabe honek Bartzelonan egin den *Espainia Kataluniaren aurka* kongresu iragan berriaz jardun zuen, orokorrera jo eta, “guztiak dira berdina” estiloan, kongresuak zein aspergarriak diren kontatuz, edo azalduz nola saltzen dizkiguten kongresuetako edukiak gupida barik kazetari eta herritar tentelei; eta baietz, titulua-ekin asmatu zutela Bartzelonakoe, horrela sona handia lortuz, baina hura ere, azken finean, artalde lokartzeko modukoa izan zela. Hori guztia Kongresu horretan egon barik. Tira, egunero idaztearen ajeak.

Irakurle, datorren 2014an hala-koak irakurtzen badizkidazu, barre egiteaz gain, adierazi diezadazu mesedez, ez konturatzea baino okerragorik ez da eta. Urte berri on. ■



ASTE HONETAKO zozketa



Argiako harpidedunentzat



Bilboko Euskal Museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

1



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

2



Hala bedi irratia

30 urte
kolpez kolpe
4 liburu/DVD opari

Hala Bedi Irratia
Bueno Monreal 16, behea
Gasteiz, ARABA

www.halabedi.org

3



14 abesti eta hamahiru istorio txiki

Angel Unzu &
Txuma Murugarren

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze, GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2395. Argia)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA

- Josu Belar Unamuno (Arrasate)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Rafael Gomez Urbiria (Donostia)
- Javier Iraeta Narbaiza (Durango)
- Leire Elizagarai Rodriguez (Gasteiz)

EKAINBERRI

- Jon Mikel Barandiaran Arratibel (Errenteria)
- Jose Antonio Amundarain Arana (Oñati)
- Gurutze Aiarzaguen Aranzibia (Zaldibar)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Josebe Sagarzazu Antsizar (Hondarribia)
- Maite Aboitiz Atxurra (Bilbo)
- Arantxa Aizpurua Arruti (Zarautz)

ARGIA EGUTEGIA 2014

- Kari Lopez Davalillo Bañuelos (Galarreta)
- Asier Lizarriturri Martiarena (Aretxabaleta)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia





Aurtengo oparia



*harpidetza egizu
egiozu*

Orain

%50eko
beherapena

harpide berrientzat lehen urtean

hilean 6 € baino ez!

Eskaintza hau 2013ko abenduaren 31n amaitzen da

Eskaerak:

☎ 943 371 545 | harpide@argia.com | www.argia.com/harpidetza

